

uztarría

||Azpeitiko herrI aldizkaria ||2009ko uztaía ||108. zenbakia |||||||



UDALEKOAK EZBAIAN

Udal ordezkariak mahai-
inguruan, herrian hizpide
diren gaiak jorratuz 20


AUTOBERRI


Loiola Auzoa 20
20730 Azpeitia
943 81 08 08
943 15 79 01



RENAULT Espace
 Motorea: 1.9 dci
 Urtea: 2004
 Kilometroak: 100.000

Prezioa: 17.000 euro



Megane Sedan Confort Expression
 Motorea: 1,5 cc 105 cv
 Urtea: 2007
 Kilometroak: 6.000

Prezioa: 11.000 euro



Megane Confort Expression
 Motorea: 1,5 cc 105 cv
 Urtea: 2007
 Kilometroak: 35.000

Prezioa: 12.000 euro



Grand Espace
 Motorea: 2.0 150cv
 Urtea: 2007
 Kilometroak: 9.500

Prezioa: 26.900 euro

Modelo	Km	DATA	PREZIOA
CLIO III			
CLIOIII CON EXP 1.5DCI 85 CV 5P	21.100	2006	11.500,00 €
Clio III EMOTION 1.5 85 CV 5P	15.000	2008	11.900,00 €
Clio III EMOTION 1.5 85 CV 5P	6.572	2008	12.500,00 €
CLIOIII CON EXP 1.5DCI 85 CV 5P	9.800	2007	12.500,00 €
CLIOIII PAC DYN 1.5DCI 85 CV 3P	10.000	2007	13.000,00 €
CLIOIII CON DY 1.5DCI 105 CV 3P	100	2007	14.250,00 €
ESPACE IV			
ESPACE 1.9 DCI EXPRESSION 5P	110.000	2005	17.000,00 €
ESPACE N EXPRESSION 2.2 DCI 16 V	84.375	2006	18.500,00 €
ESPACE 1.9DCI EXPRESSION 120 CV	27.500	2006	19.500,00 €
GRAN ESPACE EMOTION	9.500	2007	26.900,00 €
KANGOO			
KANGOO COMBI 4X4 1.6 16 V 95 CV	18.000	2007	13.000,00 €
KANGOO Furgón Confort 1.5 DCI	122.000	2007	7.500,00 €
KOLEOS			
KOLEOS DY PK2 2.0 DCI 150 CV 4X2	19.850	2008	24.900,00 €
LAGUNA II			
LAG2 EX 1,9 DCI	150.000	2001	5.500,00 €
LAGUNA II PRI 1.9 DCI 130 CV	105.000	2004	10.300,00 €
LAGUNA G.T.1.9DCI Con.Dyn.120 5P	117.586	2005	11.500,00 €
LAGUNA II CON EXP 1.9 DCI 130 C	25.100	2006	12.800,00 €
LAGUNA FAM II EXP 1.9 DCI 120 CV	65.700	2006	14.500,00 €
LAGUNA III			
N. LAGUNA III DYN 2.0 DCI 150CV	10.500	2007	24.500,00 €

Modelo	Km	DATA	PREZIOA
MASTER			
MASTER FURGON 3500 LAR SOB 2.5DC	164.500	2006	12.000,00 €
MASTER FURGON 35 LS 2.5 D	174.218	2006	12.500,00 €
MEGANE II			
MEGANE II Dynamic 1.5 DCI 85 CV	22.699	2008	12.000,00 €
MEGANE II Privilege 1.9 DCI 130 CV	27.124	2007	13.500,00 €
MEGANE 1.5dCi C.Expres. eco2 5P	23.300	2007	11.500,00 €
MEGANE II 5P CONFORT DYNAMIQUE 1	22.500	2008	13.300,00 €
MEGANE II 5P DYNAMIQUE 15DCI 85C	19.200	2008	13.500,00 €
MEGANE II LUX PR 1.9DCI 130 3P	16.954	2006	13.500,00 €
MEGANE II CON EX 1.5DCI 105 3P	100	2008	14.000,00 €
MEGANEII 1.5 D DYNAMIQUE 5P	6.000	2008	14.300,00 €
MEGANE II CON DY 1.5DCI 105 5P	7.000	2007	15.200,00 €
MEGANE II LUX PR 1.9DCI 130 5P	100	2008	16.000,00 €
MEGANE III			
Nuevo Megane Berlina Expression	KM0	2008	15.900,00 €
Nuevo Megane Berlina Expression	KM0	2009	16.000,00 €
Nuevo Megane Berlina Dynamique d	KM0	2008	18.000,00 €
MEGANE SEDAN			
MEGANE II SEDAN	6.000	2007	11.000,00 €
MEGANE SEDAN II	10.500	2.007	11.000,00 €
SCENIC			
SCENIC II CON EXP 2.0DCI 150CV	150	2007	17.000,00 €
GRAN SCENIC II 7PL	12.547	2007	17.500,00 €
BESTE MARKAK			
PT Cruiser 2.0 16 V Touring 5P	40.500	2002	8.300,00 €
León 1.9 TDI Sport 5P	138.000	2004	9.900,00 €
Astra 1.9 CDTI Cosmo 5P	76.593	2005	11.500,00 €

ondo pasatu saninazioak!

bigarren eskuko 100 autotik gora aukeran
 Kontsultatu beste motore eta ekipamentu aukerak. Unitate mugatuak.
 Finantziario aukera zabalak. Galdetu lasai.

uztarria

Argitaratzailea. Uztarría
 Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behe,
 (Azpeitia, 20730)
Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
 uztarría@topagunea.com
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 108.a (2009ko uztaila)
Urtea. XI.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
 Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 635 75 76 04 /
 maite@uztarria.com
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hiler
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Ane Aranburu
Web orrialdea.
www.uztarria.com

**Uztarría herri aldizkariaren
 laguntzaileak** (erakunde
 publikoak)



Gipuzkoako
 Foru Aldundia



Uztarría **Oharra.** Uztarría
Bai Euskarari Komunikazio
 Taldeak ez du
 bere gain hartzen
 herri aldizkariaren
 adierazitako
 esanena eta
 iritzien
 erantzukizunik




2009KO UZTAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? |||||



iritzia
Inkesta. Krisiak
 eragingo al du zure
 udako oporretan? **13**

mamia
Klik! Urrestillako
 Uresaundi baserriko
 negutegiak **16**
Odol-emaileak. Etenik
 gabeko beharra da
 odolarena, etenik
 gabeko lana Azpeitiko
 batzordearena **04**




jakiteko
Leo Etxeberria.
 Hari eskainitako
 biografia argitaratu
 du Uztarría **34**
Rodrigo Carrascosa.
 34 urte daramatza
 Garmendipen
 atezain lanetan **37**

Ba al dakizu 'ahotsak' proiektukoak grabazioak egiten hastekoak direla Azpeitiko edadetuekin? Uztarría

egin zaitez bazkide Uztarrían ☎ 943 15 03 58

Herri aldizkariaz gain, Uztarríaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarría Komunikazio Taldeak liburuak eta ere ateratzen ditu. Orain arte, hamabi liburu eta CD bat (ondokoa eta behekoak). Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide
gara dagoeneko Uztarrían;
 eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.
 106.400 euroko aurrekontua
 du Uztarría 2009. urterako.



20
 tia
 8
 1

Gutxirekin asko

Besteren odolaren beharra eguneroko kontua da. Horretaz ondo jabetuta daude odol-emaileak. Guztiok jabetzea nahi dute, batik bat gazteak. 📧📷 Nekane Zinkunegi

Beharra edo falta tokatu arte, gauza askoren garrantzia oharkabeen pasatzen zaigu. Odol-emaileekin ere gertatzen da halakorik. Norberari edo inguruko norbaiti zerbait gertatu eta odol transfusio baten premia egokitu arte, ez gara haien garrantziaz jabetzen. Eta odola beti behar izaten da. Eta odol-emaile berriak ere bai.

Celestino Iturtzaeta eta Gregorio Aldai Azpeitiko odol-emaileen batzordeko kideak dira. Iturtzaeta 1977an hasi zen odol-emaile izaten eta orain dela hamar urtetik dago batzordean. “Gaur egun odolik ematerik ez badut ere, hasi nintzenetik 54 aldiz-edo eman dut behintzat”, kontatzen du. Aldai, berriz, erretiratu ostean, orain bost urte, hasi zen Iturtzaetari esku bat botaz batzordean lan egiten. Zer egiten duten galdetuta, “gure lana antolaketa da” esan dute. Gregorio Aldairen hitzetan, lehen anbulatorioko beheko solairuan egiten zen dena, baina orain aldatuta dago: “Lehen solairura igo zuten eta horrek traste guztiak tokiz aldatzea eskatzen du”. Baina “orain askoz erosoagoa da odola ematera datozenentzat, espazio gehiago dago eta egokiagoa da tokia bera ere”, azpimarratu du Celestino Iturtzaetak.

Odola ematera zergatik animatu ziren azaldu dute biekin. Iturtzaetak, lantokian zebilenean, izugarritzko buruko mina izaten omen zuen eta lantokiko batek hala esan omen zion: ‘Niri ere berdina gertatzen zitzaidaan odola ema-

||| DATUAK |||||

560 urtarriletik.

Azpeitiko odol-emaileen batzordekoak pozik daude 2009ko lehen sei hilabeteek utzi dizkieten emaitzekin. Urtarriletik ekainera 2008an epe berdinean lortutakoa gainditu dute (iazko lehen seihilekoan 547 lagunek eman zuten odola). Odol-emaile berrien kopuruak, hori bai, ez du gora egin: iaz 13 izan baziren, aurten 12.

109 urtarrilean. Urteko lehen hilabetekoa da, momentuz, aurtengo markarik onena; baita emaile berrien kopuruari dagokionez ere: lau.

1.121 2008an. Urteko hamahiru ateraldietan –urtean hil batean bi egiten dituzte– odol emanaldi kopuru hori lortu zuten joan den urtean.

2 ateraldi Errezilen. Ekainean eta abenduan joaten dira Azpeitiko batzordekoak Errezilera.

ten hasi nintzen arte’, eta horrela animatu zen. Horregatik esaten du “jende askori, ez dakien arren, mesede” egingo liokeela odola emateak, “odol fuerteezia duten pertsona asko baitaude”. Aldaik, berriz, “lagunartean animatu” zela esan du, “guri ez digu kalterik egiten eta mesede, berriz, jende askori”.

Eta Azpeitiko odol-emaileen artean asko ez badira ere, Jon Larrañaga gazteak –23 urte ditu– aurten eman du lehen aldiz odola. “Familian ohitura handia dute eta aitak eskatuta hasi nintzen”. Celestino Iturtzaetak hala baieztatu ditu odol-emaile berriaren hitzak: “Honen aitaren aldeko familiaren kasua salbuespenekoa da, ez dira sendi asko izango hauenean adina jende odol-emaile daudenak”. Eta Larrañagak gaineratzen du: “Bai, nire gurasoek urteak daramatzate, dominak eta badituztela badakit behintzat”.

Bultzatu beharreko ohitura

Gazteen artean ohitura hori bultzatu beharra dagoela diote hirurek. Jon Larrañagak hala dio: “Nire lagunei-eta ez zaie gaizki iruditzen, baina gazte jendeak ez daki askorik honen inguruan, horregatik ez da animatzen”. Celestino Iturtzaetak, berriz, giroa sortzearen beharra azpimarratzen du: “Gazteek bultzada bat behar dute eta horretarako garrantzitsua da lehen aldietan euren gurasoekin edo lagunartean etortzea”.

Azpeitiko anbulatorioan hileko azken aste-



Celestino Iturtzaeta, Jon Larrañaga eta Gregorio Aldai, erreportajerako elkartuta.

azkenetan izaten dira odol-ateratzeak. Urtean hil batean azken asteazkenaz gain beste hitzordu bat ere antolatzen dute. Aurten, uztaila da bi ateraldi izango dituen hila; “uztailaren 15ean eta 29an” izango dira aurten aldi horiek, batzordekideek iragarri dutenez. Honen harira, Larrañagak hala esan du: “15ean agian bai, baina 29an jende gaztea inguratzea zaila izango da, Santio eta San Inazio jaien artean...”. Udan beti jaisten da emaile kopurua, ondo dakite hori Azpeitiko batzordean ere, baina “urtean zehar 85-90eko batezbestekoa ibiltzen badugu, uztailko egun horietako bakoitzean 60 bat edo biltzen zaizkigu”, kontatu du Celestino Iturtzaetak.

Azpeitian ibiltzeaz gain, Errezilgo herritarrengana ere joaten dira urtean bitan. Norma-

lean, ekaineko eta abenduko hilabeteetan izaten da hori. Kontatu dutenez, han ere ez da jende gazte asko animatzen. Eta hain justu, gazteena da egokiena den odola, “sasoian dauden pertsonena baita garbiena eta puruena, oraindik botikak hartzen hasi ez diren horiena”, esaten du Aldaik.

Ahal den jende guztia eta batik bat gazteak animatzea komeni dela diote. “Jende artean entzuterik ez badu, ez da inor mugitzen. Orain gutxi odol faltan geunden berria zabaldu genuen eta hurrengo ateraldian 108 pertsona inguratu ziren”, kontatu du Iturtzaetak, adibidea jarriz. Larrañaga, hain justu, orduan joan zen lehen aldiz odola ematera: “Bai, gogoratzen naiz nola ilaran zain egon beharra izan genuen”. Egun hartako pasartea zela-eta, eskerrak eman eta barkamena eskatzea

ere nahi izan dute juntakoek: “Jendeak ez du bada nahikoa egiten, eguna lanean igaro eta odola ematera joandakoan gainera zain egoteko...”.

Jendeari deialdia luzatu nahian, hirurek baieztatu dute: “Ez zaigu ezer kostatzen eta gaixoei, istripuak izan dituztenei zein beste hainbati egiten diegun mesedea izugarria da”. Gainera, irribarrez, Gregorio Aldaik honela esan du: “Oso ondo zaintzen dugu jendea, saiatzen gara txorakeri batzuk esanez eta umore ona mantentzen, jendea aspertu ez dadin”.

40. urtemuga prestatzen

Aurtengo gabonetan 40. urtemuga ospatuko dute Azpeitiko odol-emaileen batzordean eta udako oporren ostean urteurren horretarako “zerbait berezia” prestatzen hasi asmotan dirrela aurreratu dute batzordekideek: “Hasiera hartan taldean zebiltzanekin elkartu eta zerbait txukuna prestatu nahi gunque”. Garai batekoak ez ezik berriak ere inguratzen bazaizkie, ez dute kezurik izango.*

||| “Ez zaigu ezer kostatzen eta gaixoei, istripuak izan dituztenei zein beste hainbati mesede izugarria egiten diegu”

C. ITURTZAETA, J. LARRAÑAGA, G. ALDAI **odol-emaileak**

Bizileku kontua bakarrik?

Antzinako greziarrek *polis*-ak sortu zituztenetik, Europan hiria eta landa edo nekazal mundua aurrez aurre egon dira, eta gaur egun ere hala daude. Izan ere, Europako historiaren oinarrietara joanez, greziarrek sortu zituzten polisak gaur egungo hiri modernoaren aitzindari bezala har ditzakegu. Polisak harresiz inguratuak zeuden eta, gaur egungo hirietan bezala, eraikin eta leku publiko esanguratsuak aurki zitezkeen bertan, halaber *agora* izeneko leku publikoa (gaur egungo enparantza nagusiarekin alderatu daitekeena). Bertako biztanleek eskubideak eta betebeharrak zituzten, nekazariak ez bezala, eta artisautzatik eta merkataritzatik bizi ziren.

Orduan sortu zen hiritarren eta nekazarien arteko banaketa hori, gaur egun ere dirauena. Baina ez da hainbeste bizileku kontu bat, nortasun kontu bat baizik. Horrela, nahiz eta Azpeitia hirizat har daitekeen teknikoki (10.000 biztanletik gora dituzten bizileku guztiak hala dira) garbi dago izaera herrikoia dela nagusi gure artean, hiritarra baino gehiago. Horrela, besteak beste *ñoñostiar* edo *yuppie* bezalako esapideak erabiltzen ditugu hiritar nortasuna eta bizimodua dutenei erreferentzia egiteko.

Hala ere, nahiz eta gure herritar nortasunaren jatorria nekazal munduan aurkitu, urbanistikoki begi-bistakoa da ez garela barreiatutako edo isolatutako baserrietan bizi herritar gehienok. Edo ez garela nekazaritza edo abeltzaintzatik bizi. Baina kontu hau beti horrela izan al da? Edo, aldatu bazen, noiz izan zen?

Hiribilduaren sorrera

Europa, XII. mendea. Kontinente zaharrea nobleak beraien feudoetan bizi dira eta beraien lurak lantzeko jopuak edo nekazari ezaskeak erabiltzen dituzte; azken horiek garai nahasi haietan babes truke edozer gauza egiteko prest daude. Baina mende horretan




markel mendizabal

||| Baserrietatik hiribildura bizitzera joan ziren haiek nobleekiko askatasun gose ziren

aldaketa garaia hasiko da, nekazariak duten askatasun gosea medio. Horrela, Europa osoan zehar hiri zaharrak berpiztu egingo dira, eta berriak sortu. Berrito ere nekazari eta hiritar nortasunaren arteko banaketa nabarmendu egingo da. Izan ere, nekazariak nobleengatik aske izateko gose daude eta, horretarako, lanbide berriak garatu zituzten, merkataritzarekin eta artisautzarekin lotuta nagusiki.

Nahiz eta euskal hiribilduen sorrerak bere berezitasunak izan, oro har prozesu berdina errepikatu zen. Beraz, hurrengo urtean gogoa izango dugun Azpeitiko hiribilduaren sorreraren urteurrenak aukera emango digu gure bizimoduaren eta nortasunaren jatorriei ere erreparatzeko.

Baserrietatik hiribildura bizitzera etorri ziren haiek guztiak ez zuten bere nortasunaren jatorria ahaztu, baina bere bizimodua aldatu nahi zuten, nobleekiko askatasun gose baitziren. Gaur egungo azpeitiarrek ere asko zor diegula uste dut gure herriko lehenengo biztanle haiei. Beraien alde!!!*



Xanti.R

ONDO PASA ETA GUTXI GASTAU INGURUMENA!

Jaiak eta jai-giroa zabaltzen dira gure inguruko bazter guztietara uda garaian. Kontsumoaren gorakada ere badakarte gehienetan, eta nola ez, zabor gehiagoren sorrera. Jaiaz goatzera zoazenean, gogoan izan **hondakin gutxiago sortzeko irizpideak**, ingurumena zaintzea eta ondo pasatzea bateragarriak baitira.

Erabili edalontzi eta baxera **BERRERABILGARRIAK**, erabilera bakarrekoak saihestuz.

Ongi neurtu erosi beharreko **KANTITATEAK**, ahalik eta gutxien sobra dadin.

Aukeratu ontzi eta **BILDUKI GUTXIEN** dituzten produktuak.

BEREIZTU sortzen dituzun hondakinak eta utzi bakoitza dagokion lekuan.

Errespetatu eta **ZAINDU** guztion ingurunea: txukuntasuna, hiri-altzariak, zarata...

Kirola eta beste kontu batzuk

K irolaz mintzo garenean sarritan politika, diru kontuak eta bestelakoak nahasten ditugu. Dirua eta kirolaren tandem oso indartsua da eliteko kirolari zuzentzen badiogu begirada, nahiz eta kirol guztiak ez izan elitekoak, eta nahiz eta eliteko kirolari guztiak ez izan dirudun, begira bestela Athleticceko neskei. Kirola eta merkatuaren arteko harremanean generoak jokatzeko duen papera aztertzeak luze joko liguke eta honi loturiko anekdota batzuk kontatzera mugatuko naiz.

Azken urteetan, emakumeek arlo publikoan izan behar duten parte-hartzeaz asko aritu gara, kirolean besteak beste. Administrazio publikoek gai honetan egin eta egin ez duten esfortzuetik haratago, askotan ilusio eta iniziatiba apur batekin gauza positiboak egin daitezke. Bagitxitxin-etaz ari naiz, adin eta baldintza ezberdinetako emakume asko bildu eta korrikara bultzatu duen talde eta ekimena. Honekin ez dut esan nahi Bagitxitxinetik kanpo gure herrian emakumezko korrikalari ez denik. Nire ikuspuntu baikor hau herri mailan konpartitua zela uste nuen, baina hara nondik talde honen aurkako lehen kritikak iritsi zitzaizkidan. Harritura geratu nintzen, zeini egiten dio kalte ba talde honek? Protagonismo bila ibili direla, ez dakit zer egunkarik beti beraiek ateratzen dituela, beste korrikalari asko, emakumezko nahiz gizonezko, estaliz, eta hori gutxi balitz, taldekideen ezaugarri fisiko eta estetikoaren aurkako zenbait irain. Agian, nik filmaren parte bat bakarrik ikusi dut, baina aurrerakin hau ez zait asko gustatu. Karnabaletan gizon koadrila bat Bagitxitxinetaz mozorrotzea kritika hauen baitan kokatzea agian gehiegizkoa da eta, beraz, karnabalek ematen duten liberazio esparruan ikusten saiatu naiz. Ez da oraingoa gizonek emakumez mozorrotzeko duten ohitura, eskerrak emakumeak ginela Freuden arabera zakilarren inbidia geneukanak.

Baina *Bagitxitxik* bat ere badela esan dinate Azpeitian, emakumeena baino askoz za-



||||||||||| **Eider Alkorta** |||

||| Behin aita izan ondoren, kristoren afizioa sortzen omen da kirol ezberdinak praktikatzeko

balagoa. Niri atentzia eman izan dit, Loiolako abenidan arratsaldeko zazpiak-zortziak inguruan hainbeste mutil eta gizonezko korrikan ikusteak. "Hori da hori afizioa edo moda!", pentsatu izan dut, baina aurrekoan, erdi serio erdi brometan, ezkonberri eta ama-berri batzuek afizio horren beste aldea zein izan zitekeen kontatu zidaten. Behin aita izan ondoren, kristoren afizioa sortzen omen da kirol ezberdinak praktikatzeko eta ordurarte gau txori zirenak, astegunetako korrikalari fin bilakatzen dira. Fenomeno kuriozkoa alajaina! Baliteke familia eta lan munduaren kontziliazioaren estresetik ihes egiteko bide sana izatea *Bagitxitxik*-en oinarria; batzuk diote emakumezko askok ihesbide hori kafetegietan aurkitzen dutela.

Txanpinoiak bezala ugaritzen

Kontuak kontu, korrikalariak txanpinoiak bezala ugaritzen ari dira Azpeitian. Kirola kirol moduan bakarrik ere ikus daiteke noski, baina abilezia handia daukagu ezeretik mendia egiteko. Azken finean errealitatea bakoitzaren betaurrekoen arabera da.✘





Bai Euskarari Ziurtagiria

balioa eta berrikuntza · valor e innovación



ZADORRA-ETXEA

AGURAIN

NEKATUR

DONOSTIA



ERANDIO

ARLAN



SOKOA

HENDAIA



IURRETA

IURRETA INSTITUTUA



ELKAR

IRUÑEA



MENDIA OPTIKA

GASTEIZ

1.600 entitate baino gehiago ziur daude

ziurtagiriaren **elkartea**



902 430026

baieuskarari.org

||| HIZKUNTZ ESKUBIDEAK |||



GORA. Euskaraz mintzo den erakusleihoa.

Herriko dendetara joan eta gustua ematen du halako erakusleihoeekin topo egiteak! Bejondeiela euskarari bultzada ematen dieten dendari guztiei! **Uztarría**



BEHERA. Euskarari alergia diote igerilekuan.

Instalazioekin loturarik ez dutenei ez ezik, euskarari ere atea itxi dizkiete herriko igerilekuan. Horrenbeste kostatzen ote da kartel hau euskaratzea? **Uztarría***



||| UZTARRIA.COM-EN |||

BLOGAK.

Estitxu Elduaian. "(...) Pep Guardiola ekarriko dut gurera, orain urte batzuk hemen bertara, Azpeitiko kaleetara bera bere kabuz etorri zen moduan. (...) Errebaleko denda bateko andre

batek ikusi, eta beregana jo omen zuen. 'Aizu, horko tabernako jabeak oso Bartzelona zaleak dira, eta pena da zu ikusi gabe joatea'. Oker tabernakoak ziren bartzeloenistak. Baina taberna itxita omen zegoen. Guardiolak biharamune-

an ere Azpeitia aldean ibiliko zela eta itzuliko zela tabernakoak agurtzera esan zion dendariari. Eta esandakoa egin. Hurrengo goizean ere han agertu omen zen futbolariari. Okerreko tabernarieneztat goiz antxean izan, ordea, non-



Iñaki Agirreazkuenaga.

||| ESANA DAGO |||

||| "Euskararen ordenantzak gaztelania diskriminatu egiten duela esatea imajinarioa, irreala da"

IÑAKI AGIRREAZKUENAGA
legetaria

||| "Denon esku dago. Badirudi Azpeitian jendeari kostatu egiten zaiola horrelako tailerretan parte hartzea"

INAZIO TOLOSA
antzerki tailerreko zuzendaria

bait, eta berriro ere atea itxita topatu omen zuen. Barre egin eta 'lastima' esanez alde egin omen zuen Guardiolak (...)"

INKESTA.

Berreskuratu beharko al litzateke Azpeitia-Zumaia arteko Urolako trenua?

Bai. %90,38.

Ez. %9,62.

||| **Orain dagoen galdera.** Joan al zara ostiral arratsaldetako azokara?*

Azpeitiarren arteko neurketa berezia



iritzia Iñaki elortza

Jaio terri bereko pilotarien arteko partidak sarritan eman dira. Agian garai batean errazagoa zen pilotan herri guztietan jokatzeko. Urrutira joan gabe, profesionalen arteko partidak azpeitiarren artean ere eman dira. Gaur, orain 98 urte jokaturiko partidari begira jarri behar gara. Erremontean eta Donostiako Ategorrietako Jai-Alain, 1911ko irailaren 1eko egitarauak zioen: 'Kanpos anaiak Uzin anaien aurka, aurrelariak 8tik atereaz sakea'.

Erremonteko partidarik luzeenetakoa izan da. Bi ordu eta hogeitabost minutu luzez aritu ziren eta zaleak ez ziren eserlekuetatik mugitu

amaiera arte. Tanto lehiatuak ia denak, adorea eta gogoia soberan... Eraso zorrotzari defentsa bikainarekin erantzun. Zeinek sartu tantoa Ttantorri eta Ildefonsori! Azkenean, Kanpostarrek 50-46 irabazi. Amaieran oinak odoleztatuta, Ategorrietako zolu lakarrak ordungo alpargatak erraz jaten zituen. Hura jendearen poza, hura festa, irabazleen izenak oihukatuz... Ez omen zen horrelakorik inoiz ikusi. Garaiko zaleek hau omen zioten: "Zelestino Uzin ondo, Ildefonso ikusgarri, Kanpitos liluragarri eta Ttantto onena". Sarritan jokatuta omen zuten gainera elkarren aurka.

Ildefonso Uzin, *Uzin I.a*, 1890an jaio zen, eskuz hasi eta 1910ean erremontean debutatu zuen Donostian. Zelestino Uzin, *Uzin II.a*, 1892an jaio eta 1920an erretiratu zen.

Joxe Antonio Kanpos, *Ttantto*, 1884an jaio eta 17 urterekin eskuz debutatu zuen, eta partida ugari jokatu Takolo, Baltasar eta garaiko onenekin. 1906an erremontean hasi eta berehala sekulako dohaiak zituela erakutsi zuen. Kanpitos anirik gazteena zen.

Ategorrietako pilotalekua 1887an ireki zen eta bertatik puntista, palista eta erremontista onenak pasatu ziren.*

IKUSTEKOA



▲ AZPEITIA IZENEN ZUBIA AFRIKA ERDIALDEKO BANGASSOU HERRIXKAN.

Azpeitiko, Zumaia eta Zarauzko udalak Bangassou Fundazioarekin elkarlanean ari dira, Afrikako Bangassou zubia eraikitzeko. Guztira 15 zubi egingo dituzte eta horiei esker 300.000 pertsonak askatasun gehiago izango dute batetik bestera mugitzeko. Laguntza eskertzeko hiru herriek zubi bana izango dute beren izenekin. [✉ Ainitze Agirrezabala](#) [📞 Migel Agirre](#)*

███ EKAINEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN... ██████████



██████████ maite garmendia ██████████



Lehen-orain

ARGAZKI ARTXIBOA. Azpeitiko argazkien artxiboa osatzekotan dabilza. Egin dezagun jolas, operazio estetikoetan egiten duten antzera: lehen-orain. Azter ditzagun diferentziak; onerako ala txarrerako aldatu da? Berdegune gehiago ala gutxiago dugu? Porlanak zenbateraino jan gaitu? Non dago jendea, etxean ala ka-lean? Gaurko azpeitiarrak zorientsuagoak al gara duela hirurogei urtekoak baino?



Elkarretaratzeak

BIZIRIK. Udaletxe aurrean, jendea geroz eta sarriago elkartzen da. Elkarretaratzeak genero indarkeriatatik, ETAk eragindako hildako eta txikizioengatik, ETako preso eta desagertuengatik, langileen eskubide urratuengatik, Palestinatik... Herria bizirik dago, isilik egiten du oihu.



Europa! Europa?

BOZKAK. Europako azken hauteskundeetan prisma politikoko alde 'denek' izan dute parada botoek emandako sostenguaz jabetzeko. Biolentziaren hala-nolako gaitzespenak, atea ireki diete batzuei. Badirudi, gainontzekoek indarkeriaren kontrako labela berezkoa dutela. Badirudi

ziega zuloetan grabatzen ez diren indarkeria ezkutuak, gerrak bide bazterrean utzitako gorpu ixilak, biktima zibil errugabeak eragin dituen urruneko gudu 'justifikatuak' ez direla batzuentzat deitoragarriak. Indarkeriak aurpegi asko ditu, aizue.✘

INKESTA

krisiak eraginik izango al du zure udako oporretan?

 Ainitze Agirrezabala

LOREA ORBEGOZO

langilea



"Nire kasuan krisiak ez du eraginik izango; langabezian

dauden kasuan, akaso bai. Oporrak, gainera, egin beharrekoak dira. Oraindik ez dakit nora joango naizen, baina inork laguntzen badit gustura joango nintzateke".

MIREN GARATE

langilea



"Ez, aurten ere norabait joateko asmoa badaukat. Normalean

irailean hartzen ditut oporrak, hegaldiak eta dezente merkeago egoten direlako. Bi aste-edo pasako ditut kanpoan, baina oraindik ez dakit non".

JUANJO EZAMA

jubilatua



"Nire kasuan ez du eraginik krisiak, jubilatuta nago eta. Gogoa

dudanero kanpora joateko aukera dut. Udan Mosku aldera joatekotan nintzen, baina ama zaintzen geratu beharra dut".

LUIS SUBINAS

langilea



"Nik urteroko oporrak egingo ditut. Pirinioetara joango naiz,

kanpinera. Urte osoan lana eginda gero, ahal den heinean, oporrak egin behar dira".*

Energia berriztagarriak



higinio oartzabala

nahiko nuke eta hala espero dut, denon onerako. Lehen ere Azpeitia herri kutsatuenetakoen zerrendan dago, edo zegoen, behintzat.

Klima aldaketa, berotegi efektua eta gure luraren kutsadurak sortzen duen larritasunak eta kezkek nazioarteko ehunka aditu bilduarazi ditu egun hauetan Barakaldoko BECen, 'European Future Energy' jardunaldietan, etorkizuneko energia eredu berriztagarriak eztabaidatzeko, *Orain da garaia* lelopean. "Klima aldaketa dela-eta, hamar urte geratzen zaizkigu itzuli ezinezko puntu batera heltzeko" (Bianca Jagger). Etorkizun iraunkorra eraiki nahi bada, eguzkia, haizea eta itsas indarrak energia bihurtu behar dira, berriztagarriak izateaz gain, iraunkorrak eta agortezinak ere badirelako. Oraingo energia denak iraungigarriak dira. Enpresari batzuk ikusten ariko dira jada, etorkizunerako gai interesgarria izan daitekeela, eta bizi duten krisitik irteteko abiapuntu bat.*

galdetzen hasita, azkoitian igeri leku berria ireki izana nabarituiko al dute azpeitiko kanpoko igeri lekuan?  Uztarria

Esker onez agurtuz



kepa susperregi

ben kongregazio osoak duen helburu nagusia, "gizon-emakumeen giza heldutasuna eta kristau sentiberatasuna garatzen lagunduz".

Eskola orduetatik kanpo, Alcor, gaztetxo mugimendua bultzatuz ezagutu izan ditugu. Bai eta Parrokia inguruan ere, katekesian edo gaztetxo eta gazteekin batera lantzen ditugun ekimenetan parte hartuz, lankide izanez.


Ikastetxeetan ez ezik giza garapen ekimen desberdinetan parte hartzen baitute han eta hemen: espetxeetan, arazoak dituzten umeen harrera etxeetan, kale-hezitzaile lanetan... Horren lekuko ditugu, besteak beste, ezagunak ditugun jesuitina azpeitiar batzuk ere.

Pena eman digu albiste honek. Hala ere, esker onez agurtu nahi genituzke, hainbeste urtetan zehar egindako lana eta izandako harremana eskertuz. Eta, jakina, luzatzen diguten lekukoa gure eskutan hartuz.*

Aurreko egun batean telefonoz jaso nuen, aldikaria kaleratzerako zabaldua egongo den albiste. Gure artean hainbat urteetan ezagutu izan dugun taldeak, Jesuitinen lekaiak, Azpeititik alde egiten duela. Iraurgi Ikastetxearekiko lotura erabat galduko ez badute ere, lekaiak elkarrekin ez da gure artean biziko.

Imanol Eliasek, *Azpeitia historian zehar* liburuan aipatzen dituen datuak kontuan harturik, 1922. urte inguruan iritsi zen gure artera Jesuitinen lehen lekaiak taldea. Enparan kalean izan zuten komentuan zabaldu zuten gau-eskolaren lehen datuak 1924. urtekoak omen dira. Denborarekin gau-eskola ikastetxe bihurtuko zen. 1967. urte inguruan pasa ziren jesuitinak gaur egun Santutxo inguruan duten ikastetxera.





Laurogeitaka urtetan irakaskuntza, hezkuntza lana, izan da gure artean beren eginkizuna. Garaian garaiko ezaugarriekin landu izan dute Jesusen Ala-



OTSOBELTZ



Andoni Salegiri



Esan nahi, ta ezin esan

Zepai zenari puntua jarri zioten:
*Francisco Franco degu
Españan gizona.*

Eta Zepaik erantzun:
*Aspaldi hontan hemen
agintzen dagona...
Esan nahi ta ezin esan
hau bai dala lana!
Anai maite bat nuan
gerran galdu zana.*

Francok irabazi zuen gerra madarikatua. Eta nahi bai, baina ezin esan pentsatzen zutena. Ez esan gabe, ordea. Anaia maite zuen, eta anaia gerran galdu zen. Ez zuen esan, baina frankistek hil zioten anaia. Eta hori ez da, noski, maitatzeko modukoa. Ezin esan, baina frankistenganako gorrotoa garbi utzi zuen Zepaik. Esan gabe, dena esan zuen.

Behin Elgetan, gai-jartzaileak bertso-saioa bukatzea komeni zela aipatu zuen, frantsesek –Xalbador eta Mattin– joateko presa zutelako. Xalbadorrek horrela bukatu zuen agurra:
*hemendik ez da frantsesik joanen
handik ez baita etorri.*

Ez zirela joango esan, ez zirela frantsesak adierazteko. Hau esan, bestea esateko. Beste zerbait esan, esan nahi duguna adierazteko. Eta esan gabe, Xalbadorrek dena esaten zuen.

Espainiako Auzitegi Gorenak bertan behera utzi du Azpeitiko euskararen ordenantza, aurretik EAEko Auzitegi Nagusiak bezala. Ordenantzaren helburua gaztelera desagerraraztea omen da. Auzitegi Gorenako eta Auzitegi Nagusiko epaileek badakite gaztelera desagertuko ez dena. Diglosia egoeran



||||||| **joxin iturriotz** |||||

gaude Euskal Herrian. Iparraldean frantsesak euskarari lekua jaten dio etengabe. Hegoaldean espainola da hizkuntza nagusia, eta euskara menpekkoa. Euskara desagertzeko arriskuan dago, espainola ez bezala. Euskarak iraungo badu, lana lepo egin beharra dago, eta halere kostatuko zaio egoera normalizatu batera iristea. Hori da daukagun errealitatea. Gaztelera, poliki-poliki, presarik gabe, etengabe, nagusitzen ari da. Ez dago, ez, arriskuan. Ez Euskal Herrian, are gutxiago Espainian eta munduan.

Ordenantzaren helburua gaztelera desagerraraztea dela diote epaileek, beraien helburua euskara desagerraraztea dela adierazteko. Espainola ez den besterik onartzen ez dutelako. Hau esan, bestea esateko. Esan gabe, dena esan digute.*

Camendi
Bona Bona
Goiako Kalea, 4 - Tfnoa: 81 13 49

ORKATZ KULTUR ELKARTEA
Erdi Kalea, 24

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edreoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97

ostadar optika
OPTIKOAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87

**lentzeria
mertzeria**
jose artetxe, 16
nabar

uztarrria

LUBA
aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea
- AHOLKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA
Enparan kalea, 45
Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

arte eta dizainu ikastegia
art
Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00
Pintura 17:30/19:00
Talla 19:30/21:00
Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

lora-etxea ...
Kimubat
ASTE BUKAERAN IREKIA
Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com



▲ HEKTAREA PASA.

Jose Ignazio Zabaleta eta Arantxa Otegi senar-emazteek 12.000 metro koadroko lurzoria lantzen dute. 37 negutegi dituzte guztira, eta tomateak eta letxugak landatzetik ateratzen dute bizimodua aurrera. Beraiekin batera, beste hiru langile aritzen dira berotegietan lanean.

Urte osoan ereiten

Urrestillako Uresaundi baserrian hektarea pasatxoko lursaila dute, 37 negutegirekin. Tomateak eta letxugak landatzen dituzte, urte guztian. 📧📍 Ainitze Agirrezabala



▲ **BI MODUTAKO LABOREA.**

Bederatzi mila metro koadro lursail, labore hidroponikorako erabiltzen dituzte. Horietatik sei mila metro koadro tomatea ereiteko, eta gainontzeko hiru mila metro koadroak letxugentzat. Laborantzarako beste modu bat lurrekoa da, goiko argazkian ikusi daitekeena. Letxugak bakarrik ereiten dituzte modu horretan eta hiru mila metro koadroko saila dute horretarako.

► **LANDAKETA.**

Esku batean letxuga landarez betetako panela hartu eta negutegiko zoruan errenkadan jarrita dauden sustratoz betetako zakuetan landatzen dituzte letxugak. Argazkian ageri den laborantza modua hidroponikoa da. Astero sei mila letxuga landatzen dituzte, eta beste horrenbeste kendu, saltzeko.






▲ **HELDUTAKO LETXUGAK MOZTEN.**

Letxugak landatu denetik heldutasunera iristen hiru-lau hilabete behar ditu neguan. Udan, berriz, hilabete nahikoa du heltzeko. Argazkian, letxugak zuztarretik moztzen, saltzeko.

► **ZAZPI ONGARRI DESBERDIN.**

Labore hidroponikoetan, ordenagailu bidez zazpi ongari klase sartzen dizkiote landareari ureztatze hodietatik. Tomate loretik alea hazteko, negutegietan erleak jartzen dituzte, hauek haizearen lana eginez polena mugitzeko. Zomorroen kontra, ostera, harrapariak jartzen dituzte landareetan.



▲ **KIMUAK KENDU.**

Bi astean behin kimuak jak, kendu eta kimu nagusia gora doan heinean lokarriarekin soka horira lotzen dituzte.



▲ **KALITATEAREN ZIURTAGIRIA.**

Eusko Label kalitadedun tomateak direla ziurtatzeko, tomate aleei pegatina bana jartzen zaie, gero dendetara banatzeko.





▲ **TOMATE BILKETA.**

Bi egunean behin biltzen dute tomateak. Udan bi hilabete eta erdi behar du tomateak heltzeko; neguan hiru hilabete eta erdi. Neguan berogailua jartzen dute landarea azkarrago etortzeko. Temperatura eta haizearen arabera sentso bidez negutegiko sabaia ireki edo itxi egiten da.



▲ **GOIZEAN GOIZ, BANAKETA.**

Eguna argitzerako hasten dira dendaz-denda banaketa lanarekin. Bezperan, ordea, bezero bakoitzari deitu eta jasotako eskariaren arabera jenero guztia pronto uzten dute. Azpeitian, Zestean, Zumaietan, Donostian, Astigarragan, Lasarten, Hernanin eta Errenterian burutzen dute banaketa. ✘

Bakoitzak berea mahai gainean

Udalak eta Udalean egin beharreko bidez ikuspuntu ezberdinak azaldu dituzte, beste behin, gobernuko eta oposizioko alderdiek. 📎 Ainitze Agirrezabala 📍 Ane Aranburu

Azpeitiko Udalak, haren proiektuek edota bertako ordezkari politiko-en arteko harremanek zeresan ugari eman dute eta ematen jarraitzen dute. Uztarriak, Udalean ordezkatuta dauden indar politikoak mahai baten bueltan elkartu eta, hitzetik hortzera dabiltzan zenbait gai eta kontu proposatuz, guztien iritzi eta jarrerak mahai gainean jarri nahi izan ditu. Hona hemen emaitza.

ETXEBELTZ-IZARRA

||| **Une honetan, ikusten al duzue irtenbide kontsentsuatu baterako aukerarik? Zein litzateke irtenbide egokiena?**

Julian Eizmendi (EAJ). “Etxebeltzeko tematika hau desblokeatzea da Azpeitiak duen arazo nagusia; Etxebeltzeko aterabide juridiko-politikoak adostea. Bost hilabete hauetan bilera asko eduki ditugu. Guk defendatu izan dugun A jarrera, epe motzean aterabidea emateko, testu bateratuan dokumentu ekonomiko-finantzieroa txertatzea da. Eta, B jarrera [oposizoiarena], testuaren errebisioa litzateke. Guk planteatu dugun bi bideak para-

||| **ESAN ETA EGIN** |||

||| **Trabarik gabe.** Uztarriak ekain hasieran aldirakarako mahai-ingurua egitea proposatu eta metodologia aurkeztu ondoren, lau alderdietako ordezkarien baiezkua ia berehalakoa izan zen. Eskertzekoa.

||| **Ekainaren 18an.** Egun horretan egin zen mahai-ingurua, Uztarriaren egoitzan. Bi ordu eta hamar minutu iraun zuen.

leloan, bateratua eramatea, horrela ez baita-go epe luzean segitzerik”.

Juan Karlos Arellano (Aralar). “Azken irtenbide bezala alkatetzatik planteatzen zaigu A eta B irtenbideak paraleloan joatea. Finean, bi gauza paralelo joateak bere kontraesanak ditu. Arau Osagarriak berriz ere berplanteatzeak ematen digu soluzio juridiko erabatekoa. Soluzio bakarra hori da”.

Iñaki Errazkin (Hautetsi Independentistak). “Herri guztiko arauen inguruko

arazo batekin aurkitzen gara. Sententzian garbi esaten den bezala, akats formal horrek, arau guztiak berriro egitea eskatzen du. Horrela, ez litzateke inolako arazorik egongo. Hemen dugun arazoa da bere garaian arauak onartu zirenean ez zirela ondo egin. Ikusten duguna da mantendu egin nahi dela orduan hartutako erabaki hori errebisio berri bat egi-tera joan gabe, horrek beste gehiengo bat egitea suposatzen duelako. Hor dago arazoa. Guk EAJri eskatzen dioguna da hasieratik errebisio berri bat ondo egitea, hor tartean sartuta dauden guztiei segurantzia juridiko bat emateko. Gehiengo batek onartutako arauak lortuz”.

Manuel Unanue (EA). “Guk arauen kontra bozkatu genuen eta kontra egoten jarraitzen dugu. Bere garaian esan genuen epaitegian zegoela Etxebeltz-Izarrako gaia, baina barre egin ziguten. Gero, epaileak atzera bota zuen. Guk ikusten dugun bide bakarra da testua patxadaz berriz hartu eta hasieratik, puntuz puntu, errebisioa egin eta metodologia hitzartzea. Guri testu bateratua onartzeko eskatzea, alferrikako eskaera da”.



Julian Eizmendi, Juan Karlos Arellano, Iñaki Errazkin eta Manuel Unanue mahaiaren bueltan, Uztarriaren egoitzan.

Eizmendi. “Denok dakigu Etxebeltzeko epaia akats formal batengatik erori dela. Diputazioko abokatuari eta etxebizitzaren sustatzaileari egindako kontsulten arabera, bateagarriak dira bi aukerak: segurtasuna Ak eta segurtasuna Bk ematen badio, A+Bk segurtasun gehiago emango dio proiektuari. Deskuideoan, hori ez bada posible, erdi batek beste erdiari jarritako bidea izango da. Baina, garrantzitsua da, ahal bada, bi aldeek adostutako bide bat segitzea”.

Arellano. “Denok egin ditugu gure kontsultak eta postura bat bestearekin kontrajarrita dago, gauzak zeini galdetzen zaizkionaren arabera. Garbi dagoena da, lau alderdiren arteko adostasunaren zain bagaude, oso zaila dugula. Finean, A eta B hartzen baditugu, edo A edo B, bietako bat indargabetuta geldituko litzateke. Batek bestea jango luke”.

Errazkin. “Bi prozesuak uztargarri egiteko, biek denbora berean bukatu beharko lukete. Bi arau desberdin momentu berdinean onartzeak ez du inongo zentzurik. Eta, ez da erdia eta erdia, gehiengoa gutxiengo baten kontra da. Momentu honetan behar duguna, ahalik eta epe motzenera metodologia bat adostea da, oztoporik jarri gabe. Prozesu hori ematen

dugun heinean bai kontratuak, bai zozketak, horiek denak, aurrera eramatea egongo da. Eta hori astebetean egin daiteke. Bi aukerak uztartzen saiatzearena ezinezkoa da; planteatzen den bezala, lehenengo onartzen dena testu bateratua da, eta behin hori onartuta indarrean jartzen denean, beste inongo konpromisorik ez dago. Eta, ulertuko duzuen bezala, hori ezin dugu onartu”.

Unanue. “Hemen proposamenak Plenoan gehiengoan erabakitzen dira. Zuk [Eizmendi] esan duzu Diputazioarekin, abokatu eta promotoreekin hitz egin duzula. Hor abantaila bat badugu: ez Diputazioak, ezta abokatu eta promotoreek ere, Plenoan ez dutela botoa ematerik. Eta, bigarren: hain justu, bai Diputazioarekin eta bai promotore eta abokatuarekin zuk etxebizitza kontuan aurrera eramanez duzun arau aldaketa hori, formal edo ez formal, epaitegiak hankaz gora bota dizu”.

Eizmendi. “Erabakia hartu beharra dago, era batera edo bestera. Kontua da, konfidantza eza dagoela”.

KULTUR AZPIEGITURAK

||| San Agustingo aretoko lanak ia bukatuta daudela esan daiteke; eta

Soreasuko proiektua, zer egoeratan dago une honetan?

Unanue. “Soreasun bi gauza desberdin daude: kulturagunea eta garajeak. Garajeetako zozketarekin hasten bagara, berriz Etxebeltz-Izarrako problematika berdinak harraipatzen gaitu, legez kanpo baitago. Soreasun aurrekontuak izugarri igo dira. Guk Soreasunarekin printzipio bat dugu: Soreasuk ez dizkigula hipotekatuko Azpeitian egin behar diren beste ekintzak. Aurreragoko lehentasunak baditugu. San Agustinek lehentasuna badu, bukatu egin behar dugu ahal den azkarren eta hori nola kudeatu erabaki. Hor beste eztabaida bat egongo da”.

Eizmendi. “Soreasuko kontinentea [eraikina] bukatuta dago. Aparkalekuak martxan jartzeko hitzarmena, aurrekontuarekin batera onartu da eta lau bat hilabeteren buruan horiek martxan jartzeko modua izango da. Hurrengo fasea auditorioa eta zinema martxan jartzea litzateke. Eta, hirugarren fase batean, gainontzeko gelak. Diru laguntzak-eta eskatuta ditugu eta mandatatu honetan zinema eta auditorioa martxan ipintzeko borroka egingo dut. Noski, hipotekatu gabe gainontzeko behar sozialak eta proiektuak. San▶

►Agustin, noski, aurten ipiniko da martxan. Gauzak ondo joanez gero, azaroan”.

Arellano. “Lehentasunak markatu behar dira eta horietan eraginkorrak izan. Une honetan San Agustin dugu lehentasun eta aurten martxan jartzeko arazorik ez litzateke izango. Gero, nola kudeatu erabaki beharko da. Soreasu egin behar da, inor kontra ez dago. Baina, bai, nola finantzatzen den eta zer lehentasunekin. Gauzak argi esan behar dira: gauden garaletan, zenbait diru gastatzeko ez gaude, eta Soreasuk diru asko eskatzen du. Beste ezer hipotekatzen ez duen bitartean, arazorik ez litzateke egongo. Garrantzitsua da kontinentea egitea, baina baita erabilera txukun bat eman eta martxan jartzea ere”.

Errazkin. “Hasieran, bost-sei milioi euroko proiektuaz hitz egiten zen [Soreasuz]. Kontua da, proiektua bera Azpeitiarako faraonikoa iruditu izan zaigula beti. Azpeitiarentzat horrelako obra batean sartzekak suposatzen dituen hipotekak izugarriak dira. Orain, ondorioak jasaten ari gara. Ja sei milioi eurotik gora gastatu ditugu. Helburu bezala Julianek aipatzen du auditorioa martxan jartzearena. Baina horretarako bakarrik ere, aurten jarri dugunarekin, beste bost milioi euro behar dira. Egoera honetan San Agustin irekitzea lehentasuna da, Kultur Mahaia ere hala erabaki du. Horren funtzionamenduaren inguruan eztabaida txukun bat eman dezagun eta Kultur Mahaia izan dadila horren dinamizazioa eta prozesu horren lanketa emango duena. Gero, bizia ere berak emango baitio. Soreasu, beste beharrak hipotekatu gabe, egiteko moduan joango da pixkanaka”.

Eizmendi. “Sei milioi pasa kostatu da Soreasuko kontinentea eta horren erdia beste administrazioek finantzatzea lortu da. Auditorioa martxan jartzea hiru milioi euro pasatxo kostako da eta laguntzak eskatuta daude; eta horien arabera, mahai gainean jarri eta hori bultzatuko da”.

Errazkin. “Auditorioa bukatzeko ez dira hiru milioi euro behar. Aurten jarri dituztenekin bost milioi eta ehun mila euro. Hori da mo-

mentu honetan Udalak aurre egin behar dion aurrekontua, auditorioa martxan jarri ahal izateko. Datuak horiek dira eta bestela, berriz ere, lehengora bueltatzen gara. Sei milioi eurotik abiatutakoa hamahiru milioi eurotan bukatzen dela”.

Eizmendi. “Datuak dira direnak eta nik esan nahi dut hor sartzen direla zortziehun mila euro horiek, urbanizazioarenak, ja ipinita daudenak. Horiez aparte, auditorioa eta zinemako eraikuntza eta horren ekipamendua hiru milioi eta ehun mila euro kostako da, arkitektoaren arabera”.

III Noizko aurrikusten da auditorioa eta zinema martxan jartzea?

Eizmendi. “Borroka egingo dut auditorioa eta zinema agintaldi honetan martxan ipintzeko. Noski, kanpoko laguntzarekin eta bideragarri izanez, hemen aipatu diren gainontzeko proiektu horiek hipotekatu gabe”.

Errazkin. “Zintzoak izanda, oso zaila da agintaldi honetan bukatzea”.

UDAL INDAR BANAKETA

III EAJk irabazi zituen 2007ko udal hauteskundeak, baina lehen aldiz alkatetza beste indar batek hartu zuen. Joan den urtarrilean, ETAK Inazio Uria hil eta ondoren etorri zen zentsura mozioaren ondorioz, EAJk alkatetza hartu zuen, baina gutxiengoan gobernatzen ari da, eta orain arte ez du oposizioarekin akordioarik lotu. Zer suposatzen du horrek?

Eizmendi. “Udal hauteskundeen ondorenean neuri tokatu zitzaidan, indar nagusienaren buru bezala, alderdiekin-eta hitz egitea. Gure borondatea hiruko gobernu egitea zen eta horrela jakinarazi genien bai EA eta baita Aralarri ere. Orain, alkatetza hartzean, urtarrilean, berdin planteatu izan da. Gure borondatea sekula ez da izan bakarrik gobernatzekoa. 2007an ANVri bi gauza esan genizkion: beraiekin ez genuela borondaterik gobernatzeko, indarkeriaren aurrean jarrera

garbirik ez zutelako. Eta, bigarren indar bezala, herriko gai nagusietan saiatuko ginela beraiekin adostasunetara iristen. Minorian gobernatze hori ez da gure borondatez izan. Ez gara bakarrik ere. Herri askotan, eta beraien borondateagatik ere ez, ari dira bakarrik gobernatzen eta, gainera, gu baino boto gutxiagorekin. Noski, gobernu zailagoa da; arazo guztien aurrean adostasunerako proposamenak beste alderdiei planteatu eta adostasuna lortzeko ahalegina etengabe egingo dugu. Adostasunak lortu ezean, garbi adieraziko diogu herriari zer ahalegin egin diren eta zer jarrera hartu diren”.

Arellano. “Bi aldiz deituak izan ginen hitz egiteko eta adostasunik ez genuen lortu. Bestalde, beste jarrera batzuk egon ziren; zenbait gai adostu ziren eta horren arabera hiruko gobernu bat osatu zen. Adostasun batzuk oso garbi genituen eta zenbait ibilbide oso txukunak izan dira, emankorrak eta eraginkorrak. Baina, atentatu baten ondorioz hilketa bat egon zen eta horren ondoren gobernutik atera ginen eta zentsura mozio bat aurkeztu zen. Guk garbi esan genuen bere garaian zentsura mozio batek ez zuela ezertarako balio, adostasunik ez bazegoen. Zentsura mozioa aurrera eraman zen, baina inongo akordioarik lortu gabe. Horren ondorena, hauxe da. Gobernutik atera ginenetik bakoitzak bere ibilbidea eman du eta orain oposizioan gaude. Orain alkatetzan dagoen alderdiarekin adostasunik ez da lortu. Bakoitzak bere jarrerak ditu, programaren arabera”.

Errazkin. “Gure aldetik ere, hainbat gauzen inguruan, indarkeria eta gatazken inguruan dituzten jarrera eta iritziekin [EAJk] ez gaude ados. 2007an ere egoera hori zen eta guk ez genuen planteatu EAJ baztertzea. Gobernu batzordean sartzeko eskaintza egin zen, onartu zenuten eta han egon zineten [Eizmendi zuzenduz]. Orduan, ez zegoen arazorik. Eta gure jarrerak berdinak ziren. Alkatetza berreskuratu zenutenean, urte eta erdian hiru aldiz saiakera egin eta gero, berriro ere lehengo planteamendura bueltatzen gara: nik alkatetza daukat, beraz, nik agintzen dut; berdin du oposizioak herritarren gehiengoaren bozkak suposatzen baditu ere, hemen nik nahi dudana ez bada egiten dekretuz hartuko ditut erabakiak. Eta, horrek sortzen ditu tirabira guztiak. Ez daude prest gehiengoak esaten duena onartzeko. EAJri gehiengo demokratiko hori errespetatzea bakarrik eskatzen diogu. Horren arabera, asko aldatuko litzateke Udaleko egoera”.

Unanue. “Zentsura mozioan oposiziora pa-

III “Adostasunak lortu ezean, herriari garbi adieraziko diogu zer ahalegin egin den eta zer jarrera hartu diren”

JULIAN EIZMENDI

alkatea (EAJ)



satzen ginela esan genuen. Julianek [Eiz-mendi] esan du beraien gogo hirukoa egi-tea zela. Guk bost hilabete hauetan idatzita pasa duzun orri bat jaso dugu. Eta, jartzen du gobernu batzordea monokolorra dela. EAri gobernu batzordean sartzeko eskaintza ahoz bakarrik egin diozu, duela hiru-lau aste. EAJk ez zigun eskaini. Orduan, komentatu genuen zergatik ez ginen denak batera sartzan, lehen geunden bezala, hauek ere bai [ezker aber-tzalekoak], eta hori ukatu egin duzu.

Eizmendi. “Gure asmoa zuekin kontatzea zela esan nizunean [Unanueri] ‘horrelako gaiak alderdira’ erantzun zenidan. Bai alderdiak, bai nik ahalegin hori egin genuen, sartu bezain pronto. Aralarri ere esan nion beraiekin kontatzen genuela. Arazoen aurrean ahaleginak egingo ditugu, konbentzitura baikau-de, herri honetan ahalegin hori sarituko dela”.

Errazkin. “Gertatzen dena da, gehiengo batekin edo bestearekin adostasun batera iristen ez zaretenean, eta besteok adostasun-nera iristeko kapazitatea dugunean, hala ere, gainetik pasatzea erabakitzen duzuela. Orduan, galdera bat: gehiengoak markatzen duena, erabakitzen duena, planteatzen duena errespetatzeko prest zaudete? Galdera hori da orain udaletxean dagoena”.

Unanue. “Ez zara egia esaten ari [Eizmendi-ri]. Alkatetza hartzean deitu zenidanean, esan nizun nirekin ez zinela jarriko hitz egiten eta alderditik alderdira hitz egin beharko zela”.

Eizmendi. “Gezurra”.

Unanue. “Gezurra zuk esaten duzu. Zu nirekin ez zara mahaian jarri. Gero, batzordean esan zenuen alderdiak [EAJ] esan zuela EAri aukera eman ziola gobernuan sartzeko eta eskaini ziola. Alderdiak behin ere ez dio eskaini EAri. Orduan, zeure partiduarekin hitz egin ezazu eta galdetu zeure alderdiari EAri sekula eskaini al dion gobernuan sartzeko. Hemen gertatzen da adostasuna badagoela, baina zu adostasun horren gainetik pasatzen zarela. Eta dena dekretuz egiten duzu”.

Errazkin. “Udaletxeko egoera horrek ez du

||| “Hemen gertatzen da adostasuna badagoela, baina horren gainetik pasa eta dena dekretuz egiten da”

MANUEL UNANUE

EA

||| “Gehiengoak markatzen duena errespetatzeko prest zaudete? Galdera hori da orain udaletxean dagoena”

IÑAKI ERRAZKIN

Hautetsi Independentistak

suposatzen ezin denik ezer egin, are gutxiago gure jarrera hori denik. Hori esan izan zaigu, blokeoak eta oztopoak jartzen ari garela. Garbi dugu herriarentzat interesgarriak diren proiektuak eta baliagarriak diren tresnak aurrera ateratzen saiatu behar garela”.

2009KO AURREKONTUAK

||| 2008koekiko egon den jaitsiera (%18,76 koa), zertan antzemango da?

Errazkin. “Aurrekontuak onartu dira azkenean, oposizioko alderdiok mahai batean jarri eta adostasunera iristeko ahalmena eduki dugulako. Egoera ekonomikoagatik gerria estutu behar zela argi geneukan. Argi geneukan, baita ere, behar sozialak zirela mantendu beharrekoak eta, inbertsioetan eta, Soreasu bezalako proiektuei aurre egitea ezinezkoa dela. Nolabaiteko oreka bilatu nahi izan dugu, arlo desberdinetan –kirola, kultura, hezkuntza– egin diren apustuak mantentzen saiatuz. Madrileko laguntzak medio beste bost proiektu aurrera eramateko aukera izango da eta gu zentzu horretan gustura gaude. Lortu dugun akordioarekin dezente proiektu aurrera ateratzea izango dugu”.

Unanue. “Diputaziotik zer kanpai jo dizkiguten ikusita, sarrerak asko murriztu dira. EAJk zirriborro bat aurkeztu zigun. Hori lantzen hasi ginenean hiru alderdiren artean adostu genuen eta Udalean aurkeztu. 15-16 puntu desberdin sartu ziren. Lehentasunak sartu ditugu eta aurrekontuetan islatzen dira”.

Eizmendi. “Aurrekontuen kudeaketak hiru bat hilabete iraun du. Zirriborro bat egin zen aurrena eta batzorde desberdinetatik pasa.



Oposizioak egin zituen ekarpenak txertatu ziren aurrekontuan; nahiz eta hiru bat puntu-ekin edo, kritikoak izan. Garrantzia du aurrekontuak onartuak izateak, krisi koitunturara egokitutako aurrekontuak. Azpimarratzeko jaitsiera bat egon da udal aurrekontuan, %18,76koa, diru-sarrerak dezente murriztea espero baita. Gizarte Zerbitzuen partida izan da gehien altxatu dena; bestalde, bederatzimiloi euro pasako inbertsioak leudeke”.

Arellano. “Berandu erabakitako aurrekontuak izan dira, baina nahiko ondo landutakoak. Egin diren ekarpenak eta berrikuntzak dezente dira; kopuru txikietan geratzen diren ekarpen xumeak, baina emankorrek izan daitetzkeenak. Momentuan momentuko gauzak konponduko dituztelako. Pauso handi bat eman dela iruditzen zait”.

Errazkin. “Argitzeko esan nahi dut, aurrekontuen kontra bozkatu zutela [EAJkoek]. Esan dezagun garbi: hiru alderdiren artean adostu eta onartutako aurrekontuak dira. Gizarte Zerbitzuen partida igo dela-eta ados zeuden, baina ez zuten zirriborroan planteatutakoa izan da igoera. Guk planteatu genuenean esan genuen horiek joango zirela Plenora, adostasunerako konpromisoarekin. EAJk ez zuen hauek onartzea beste erremediorik. Baina, gero ez esan ‘lortu ditugu eta adostu dugu eta ekarpenak jarri ditugu’; ez. Gu ez bagina gehiengoan egon, ekarpenak ez zituzten onartuko. Hori garbi dut”.

Eizmendi. “Honi ezetza, txertatzeari ez esatea ere bageneukan; ez diogu esan. Askogeure proiektuetatik zetoztelako. Desadostasunak hiru puntutan zeuden gure aldetik, baina gainontzeko ekarpenak-eta aintzakotzat hartu ditugu, eta desadostasuna eduki dugu liberazioaren kontu horretan”.

Unanue. “Zirriborroak eta guk onartu ditugun aurrekontuek zerikusirik ez dute. Baina, hori beste balorazio bat da”.

LIBERAZIOAK

||| Azpeitiakoa bezalako udal batean liberaturik ez egoteak, hasteko, ▶



► **atentzioa ematen du. Epe laburrean liberazioak berreskuratzeko modurik ikusten al duzue? Zer suposatuko luke liberaziorik gabe funtzionatzeak?**

Unanue. “Guk argi eta garbi utzi dugu Azpeitian liberazioak behar direla. Orain, etxea teilatutik edo behetik hasten da; eta, guk esaten dugu behetik hasten dela. Jakin behar dugu liberazioak zertarako eta nola adostuta eman behar diren. Ezin dena egin da, nireak niretzako eta zureak erdibana. Dekretuz lizentziak ematearen ahalmena ez du inork kuestionatzen. Gertatzen dena da, dekretuak lñakik [Errazkin] zituenean, gobernu batzordea eraman eta denok adostuz funtzionatzen zela. Funtzionamenduaren metodologia adostu behar dugu; ondoren, liberazioa automatikoki etorriko da”.

Eizmendi. “Hau, behintzat, Guinness-eko errekorra da. Azpeitian gertatu dena ez da inon gertatu. Euskadi osoan ez dago Azpeitiaren tamainako beste herri bat liberaturik gabe. Ematen diren arrazoiak funtzionamendu antidemokratikoa, dekretu bidezkoa... dira. Alkatetzatik hartu diren neurriak beti izan dira ahalmenean zegozkidanak, ez dut gehiegikeriaz jokatu. Lizentziak alkatetzaren kompetentzia dira. Arautuak izaten dira eta dekretuz erabakitzeak. Gutxiengoan herri askotan ari dira gobernatzen eta alkateak bere lizentziak hartuko ditu dekretuz eta batzuk, igoal, edukiko ditu gobernu batzordean adostuta. Adibide bat: Zestoan alkatea liberatuta dago, nahiz eta gutxiengoan egon. Baina, inori ere ez zaio bururatu, soldatarik gabe uztea. Eta Zestoan ere bere lizentziak hartuko ditu alkatetzak edo bere gobernu batzordeak. Liberazioen kontuan borondatea eduki dugu negoziatzeko eta bi liberatu eduki ditugu beti mahai gainean. Dekretuz baneuzkan beste bi liberatzea. Ez dut egin”.

Arellano. “Oposizioan dagoen gehiengoari egoera honen aurrean zalantza sortu zaio. Garbi dut zalantza hori sortu dela ez garelako fidatzen. Egiten dena, dudarik ez dut borondate onez egiten dela, legez egiten dela, Az-

III “Oposizioan dagoen gehiengoari egoera honen aurrean zalantza sortu zaio, ez garelako fidatzen”

JAUN KARLOS ARELLANO

Aralar

Bandera espainola, “umiliazioa”

III Espainiako bandera jartzeko agindurik Azpeitiko Udalera iritsi ez arren, agindua jasoko litzatekeen hipotesi horretan, Udaleko indar politikoetako lau ordezkariak euren iritzia eskatu zaie.

Horrelako kontuak eta gerrak “ez elikatzeke” eskatu du Julian Eizmendi alkateak. “Gehiengo nagusi batek geurea sentitzen dugun ikurrina hor izaten jarraitzeko, ahalegin guztiak egingo ditugu, muturreraino”.

Iñaki Errazkinen esanetan, “armekin etortzen ez diren bitartean, hori jartzea ukatu behar dugu”. Horren atzean

peitiaren hobe beharrez. Baina, garbi dut baita ere, egiten den hori ez dela neurri handi batean gehiengo batek bultzatuta edo adostuko lukeena. Hor zenbait gauza kontrajarririta daude. Bai ikusten dudala alkateak, dudarik gabe, liberatuta egon behar duela eta, seguruenik, jende gehiagok ere bai. Momentu honetan desoreka hori dago, gehiengo bat eta minorian gobernatzen ari direnen artean”.

Errazkin. “Azpeitia batek bere liberatuak beharko lituzke. Gu prest gaude emateko. Gertatzen dena da, aurretiko bat behar dela hemen. Dauden arriskuekin, gure ordezkari-tza demokratikoa errespetatzera konprometitzen zarete? Bai ala ez? [EAJri] Eta, ezezkoa da. Eman ez dena ezin da kendu. Zentsura mozioren ondoren, pleno baten bitartez berriro gobernu bat antolatzea tokatzen zen: nola funtzionatuko zuen adostu eta horren arabera erabaki batzuk hartu. Hori oraindik ez da egin. Planteatu zutena zen, dekretuz, alkatetza liberatzearena. Eta, gainera, esaten du beste bi ere dekretuz liberatzea zeuzkala. Oker ez banago, plenoan gehiengo batek eskatu zuen lehen hartutako erabakia, dekretuz funtzionatu ahal izateko aprobetxatzen ari zaretena, kentzeko. Eta, plenoa suspenditu zenuen. Oraindik erabaki hori ez da aurrera

“estrategia” bat dagoela dio: “Argi esaten zaigu herri zapaldu bat garelako eta horren sinboloa jarriko zaigula, non eta zeren menpe bizi garen adierazteko”. Zilegi ikusten du desobedientzia zibila erabiltzea.

“Gure saiakera lege horri ahalik eta oztupo gehien jarri eta azken muturreraino eramatea da”, dio Manuel Unanuek. Goardia Zibilak jartzera derrigortzen badu, “ikusiko da zintzilik zenbat irauten duen”.

Juan Karlos Arellanoren ustez, “egonezina sor dezaken sinbolo hori jartzeak ez du ezer konpontzen”. Legeak “sen ona” erabilita onartu behar direla dio.

eraman. Orduan, nik uste gehiegikeriak badaudela. Hori mahai gainean jartzen denean, oker egin dela eta gehiengo demokratikoak plenoan planteatzen dituen gauzak errespetatuko direnean, ez da inongo arazorik izango adostasunera iristeko. Zain gaude”.

Unanue. “Lizentziak alkatearenak direla ez dut zalantza jartzen, legeak hala dio. Kontua da akordioetara iristeko borondatea esaten denean, gero, dekretuz erabakitzen dela. Guinness-a aipatu duzu [Eizmendiri]. Azpeitia ez da Guinness-ean sartuko liberatuak ez daudelako; oposizioarekin inolaz ere akordioetara iristen ez den alkate bat dagoela, hori jarriko dute Guinness-ean”.

Eizmendi. “Orduan, alkatearen eskumeneko ahalmen horiek uztea pretenditzen al da? Ahalmen horiek kentzea pretenditzen da?”.

Unanue. “Baina zuk badakizu hori ez dela gauzatuko. Metodologia eta funtzionamendu globala adostea behar da. Horrek ez ditu kasuistikan jartzen alkatearen eskumenak. Inoren eskumenak kentzeko asmorik ez dut nik, ezta beste inork ere”.

Errazkin. “Hemen, ereduaren inguruko eztabaida bat dago, ez eskumenena. Agintaldi erdian zentsura mozi bat egon da, eta ez zaretze kapaz izan programa bat adosteko. Beraz, hori da tokatzen zaizuen. Gu bai, baztertu egiten gaituzue, baina hala eta guztiz ere emateko prest gaude. Planteatu ezazue eta jarrera aldatu. Ez da inoren eskumenak kentzea, elkar errespetatzea baizik”.

PARTE-HARTZEA

III **Aurreko udal gobernuaren ekimenetako bat udal kontuetan herritarren parte-hartzea indartzea izan zen. Zertan dira, egun, Udalaren**



eta arloz arloko mahai eta taldeen arteko harremanak? Nolakoak behar dute izan?

Arellano. “Dinamika politik sortu ziren zenbait mahaitan, ildoak markatu eta etekina atereaz. Egia da, mahaiak funtzionamendu aldetik bere lana ondo betetzen ari zirela. Kontua da, azkenaldian pixka bat desitxuratu egin direla. Kultur Mahaian eta Euskara Mahaian, oso nabarmen, oreka hori deskontrolatu egin da. Finean, lana egiteko lehen zegoen askatasun hori ez da aurreikusten. Mahaiek beren funtzionamendua murriztuta ikusten dute. Atzerapauso bat dago. Mahaiak zerbaiterako sortu ziren eta helburu horiek, neurri handi batean jarraitu egin beharko dute. Epeak-eta markatzeko garaia baldin badago, markatu behar dira. Gauzak egiteko garaia da”.

Errazkin. “Mahaian artean dauden eredu eta antolamendu desberdinen inguruko eztabaida kokatu behar dugu. Guretzako mahaiak estrategikoak dira. Herritarrekin batera eraiki nahi badugu Udala, ezinbesteko tresna dira. Edo horiek bultzatu, lagundu, dinamizatu, babesten ditugu; edo, berriz ere, lehen aipatu dugun ‘dekretuz nire eskumenak hartzearen’ eztabaidan sartzen gara. Urte askotan, egoera hori ezagutu dugu. Eta,

orain ikusten dena da, berriro ere saiatsen ari garela egoera horietara bueltatzen. Mahaiek behar dutena da babesa, dinamika eta errespetatzea; bertan erabakitzen dena aurrera eramaten saiatu behar dugu. Esan genuen oposiziora pasatzen ginela, baina zentzu horretan zorrotzak izango ginela. Gure ustez ez dira aholku batzorde soilak. Nahiz eta, hori esatera ausartu ez arren, batzuentzat hala izan. Horrela, lortzen dugun bakarra herritarrek aspertu eta mahaiak desitxuratzeko da. Horren aurrean, inoiz baino gehiago bultzatu behar dugu. Gure lehentasun handienetako da, udaletxetik hartutako dinamika eta erabaki guztietan mahai horien laguntza eta erabakigarritasuna izatea”.


Unanue. “Guk beti komentatu izan dugu, udaletxeko ateak jendeari ireki behar zaizkiola. Hor bultzatu egin behar da, landu eta horretan sinestu. Batzordeak eta mahaiak ondo ezkontzeko sistema bilatu behar da. Mahaie-tatik etortzen zaizkigun ekarpenak batzordeetan, denon artean, adosteko eta erabakitzeko malgutasuna behar da. Neuk Kirol Mahaian esperientzia oso ona izan nuen. Funtzionamenduan dinamika oso polita sortu zen. Orain, pixkat hoztuta ikusten dut. Musur-truk etortzen dira eta publikoki askotan esan

izan dut kristoren suertea izan nuela. Ekarpene-ak egiten dizkizute astero eta, gero, beraiek esandakoa aintzakotzat ez bada hartzen... Jendea ez dago denbora alferrik galtzeko”.

Eizmendi. “Partaidetza sustatzeko eta mahaiak bultzatzen jarraitzeko asmoa dugu. Noski, mahaietatik datorrena aintzakotzat hartu eta batzordeetan eztabaidatuz. Baina, guk printzipio bat dugu: erabakimenak udal organoetan egon behar duela. Udal ordezkariak, finean, horretarako izan dira hautatuak”.

Errazkin. “Uste dut erabakimena udal organoetan, komeni denean egoten dela. Herritarrek hainbat gairen inguruan zeresan asko dute eta parte hartzeko eta erabakimene-tan sartzeko helduak dira. Horri ez diogu inolako beldurrik eduki behar, aberastu egiten baikaitu. Hori potentziatu egin behar da. Eta, nik hor ikusten dut akatsa. Indartzen dugu, nire aldekoa eta gustukoa den bitartean; baina, arazo edo eztabaida bat dagoenean, horiek udal organoetan erabakitzen dira. Jokoak ezin du horrela izan. Uztargariak direla uste dut; asmatu behar dena da ondo komunikatzen eta parte-hartze eredu horretan gauzak aurrera eramaten. Hainbat gauzetan herritarrek iritzia emateko aukera izan behar dute. Nik uste hori ere demokrazia dela”.*

Euskara baliogabetuta

Udaleko lau indar politikoetako ordezkariak bat datoz Espainiako Auzitegi Gorenak Azpeitiko euskararen ordenantza bertan behera utziz eman duen epaia kritikatzekoan.  Mailo Oiarzabal

Espainiako Auzitegi Gorenak Azpeitiko Udaleko euskararen ordenantza baliorik gabe utzi izanaren kontra azaldu dira udaleko lau alderdietako –EAJ, Hautesi Independentistak, EA eta Aralar– ordezkariak. Uztarrian mahai-ingurua egin ondoren ezagutu da erabakia; baina gaiaren garrantzia ikusita, mahai-inguruko lau protagonisten iritzia hemenean jaso dira, labur bada ere.

Erabakiaren aurrean zer egin Udaleko organoetan aztertuko dutela adierazi du Azpeitiko alkate Julian Eizmendik (EAJ). Gore-

nak “araua oker interpretatu” duela adierazi du Eizmendik eta euskara normalizatzeko araudia- ren heburua “ez dela gaztelera diskriminatzea, euskara bazterre- an ez uztea baizik”. Nolabait, “epaitu dutena, euskaldunei ber- dintasuna bermatu nahi izatea” dela gaineratu du.

Ezker abertzaleko Iñaki Errazki- nek gogoratu du “bere garaian ezker abertzaleak ordenantza hor- rren aldeko apustua” egin zuela. “Ordenantzak ez du ezer txarrik, epaitegiak eta legeak euskararen ofizialtasuna lortzearen aur-



Mahai-inguruko une bat.

kokoak direla besterik ez”. Erraz- kinen ustetan, debekuak debeku, “ahal den heinean aurrera egiten jarraitu behar da alor honetan”.

EAKo zinegotzi Manuel Unan- ueren esanetan, epaileak orde- nantzaren helburua “gaztelera hizkuntza ofizial bezala bazter- tzea” dela esatea, “gezur borobi- la” da. “Guk ez dugu ezer gaztelan- niaren kontra, beti errespetuan aritu gara. Hemen gu izan gara euskaraz hitz egiteagatik beti zi- gortuak. Eta, guk ez dugu inoiz inor zigortu gaztelaniaz hitz egite- agatik. Horixe da desberdintasuna”.

Aralarreko Juan Karlos Arella- nok ere “erabakia ulergaitza” dela dio. “2005eko abenduaren 1ean, Udalean zegoen gehiengoak –PSE-EEko eta PPko ordezkari- ak barne– aho batez hartutako erabakia izan zen ordenantza onartzea. Udalek badute hizkun- tza politikako arauak ezartzeko beharra eta eskubidea”.*



Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:

- Logotipoa, papertegia...
- Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
- Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
- Seinaleztapena

- Komunikazioa:

- Prentsa bulego lanak
- Komunikazio kanpainak
- Mailing-ak...

||||||| jaione unanue |||



||| leire goenaga |||

Izarren argia

Jaione Unanue. Azken egun hauetan ez dun erraza Azpeititik Azkoitira iris-tea. Hortxe ibiltzen naun, Loiolako Etorbidea itxita ez topatzeko irrikitan.

Leire Goenaga. Zer ari ditun ba bidean?

Jaione. Bidean ezer ez. Esan zinatena ba film bat grabatu behar zutela Esklabetan?

Leire. Ah, bai! Kastingera ere aurkeztu behar ginena. Orain ere galdu dinagu aukera.

Jaione. Bai, bai, horixe! Grabatu behar duten bakoitzean bidea mozten ditenean kotxe zaratarik ez grabatzeko. Hala ere, lehenengo egunean susto handiagoa hartu ninan, oraindik konturatu gabe nengoenan grabatzen ari zirela eta hor ikusi ez ninan ba bandera espainol handi bat, arrano beltz eta guzti, Esklabetako leihoetatik zintzilik.

Leire. Zer, Francoren garaiko bandera hori?

Jaione. Bai, horixe. Eta, gainera, ez hunan batere txikia.

Leire. Zeri buruzko filma dun ba, bandera hori zintzilik egoteko?

Jaione. 1936ko gerran girotutako benetako istorio batean oinarrituta omen zagon. *Izarren argia* din izena. Saturrarango emakumeen kartzelari buruzkoa. Errepublikarren emakumeak sartzen zitiztenan han, ikaragarriak egiten zizkietenan. Batzuei umeak kendu eta familia frankistei emateraino. Kartzela hura mojen ardurapean omen zagonan.

Leire. Zer, orduan Esklabetan berriz mojak ibiliko ditun!

Errealitatea edo fikzioa

Jaione. Bai, oraingo honetan fikzioan. Baina, batzutan fikzioa errealitate bihurtzen dun.

Leire. Ez zekinat mojak Esklabetara buelta-

LEIRE. “Garai hura ez ninan ezagutu, baina gauza berdinak gertatzen ditun”

JAIONE. “Bai, eta bitartean denak Iranen gertatzen denarekin kezkatuta”

tuko ote diren, baina bandera espainola akaso iritsiko dun Azpeitira.

Jaione. Zer esaten dun!

Leire. Patxi Azpeitira etortzen badun (ez Franco, badakin, lehendakaria), udaletxean bandera jartzeko eskatuko ditenean akaso. Beste udaletxe batzutan jarri ditenean.


Jaione. Beste garai batzuk ematen dinabe.

Leire. Nik ez ninan garai hura ezagutu, baina nonbait gauza berdinak gertatzen ditun. Sinbolo batzuk debekatu, beste batzuk inposatu, komunikabideak itxi, alderdi politikoak ilegalizatu, pertsonak desagertu... Eta utzi egingo dinagu, bestela gure bila etorriko ditun.

Jaione. Bai, eta bitartean denak Iranen gertatzen denarekin kezkatuta.✘



Baserritarren festa eguna

Baserritarren Eguna izango da Santio egunean eta, ohi bezala, ekitaldi ugari antolatu dute eguna borobiltzeko. Sagardoa edan eta txekorra eta hegaluzea parrilan dastatu ahalko dira.  Ainitze Agirrezabala

Txistulariekin eta Musika Bandarekin hasiko da Santio eguna, eta kiroletarako, jateko nahiz edateko, zezenetarako eta musikarako tartea egongo da egunean zehar.

Ganadu Erakusketa eta X. Gazta Lehiaketa izango dira goizean, 11:00etatik aurrera. Ondoren, eguerdiko 12:00etan, sagardo lehiaketa hasiko da plazan eta aurtengo XXXVI. edizio honetan ere hoge sagardogile inguruk hartuko dute parte.

Sagardogile guztien artean, 3.000 botila inguru ekarriko dituzte eta, sagardoa probatuz zintzura busti nahi duenak, plazaren ertz batean bi euroan salduko den edalontzia erosi beharko du. Bien bitartean, plazan kantuan ariko diren hainbat bertsolarik alaituko dute giroa.

DATUAK

Zer. Baserritarren Eguna.
Eguna. Uztailak 25 (larunbata). **Ordua.** Goiz eta arratsalde **Tokia.** Enparantza Nagusia.
Antolatzailea. Azpeitiko Udala, herriko hainbat talderekin elkarlanean.

Arratsalde partean ere ekitaldirik ez da faltako: desenkajonamentua izango da zezen-plazan, 18:30ean. 22:00etan, berriz, musika emanaldiaz gozatu ahalko da Enparantza Nagusian.

Loraldi 09, sari banaketa

Horrez gain, lorez apaindutako balkoi eta leiho dotoreenen Loraldi 09 lehiaketako sariak banatuko dituzte.*

XXXVI. SAGARDO LEHIAKETA

3.000

botila. Hoge sagardogile inguruk hartuko dute parte eta guztien artean 3.000 botila irekiko dituzte.

2

euro. Sagardoa probatu nahi duenak Enparantza Nagusian bi euroan salduko diren edalontzia erosi beharko du.*

BESTERIK

1 Dantza akrobatikoak

Dantza eta abilezia gimnastikoa eta akrobatikoa nahasten dituen Acroindar taldeak emanaldia eskainiko du. Donostiako talde honek duela lau urte ekin zion dantza ibilbideari eta gorputz espresioaren bidez oreka, kaosa, indarra, samurtasuna, bakea eta tentsioa transmititzea dute helburu.

Eguna. Uztailak 4 (larunbata).

Ordua. 22:00 **Tokia.**

Enparantza Nagusia.

Antolatzailea. Azpeitiko Udala.

2 Errekortariak zezen-plazan

Ausardia eta bizitasun handiz, zezenen adarretatik gertu errekortarien abilezia ikusteko aukera izango da.

Eguna. Uztailak 19 (igandea).

Ordua. 18:30 **Tokia.** Zezen-plaza.

Antolatzailea. Zezen Beltz elkarte eta Azpeitiko Udala.

3 Sri Lankako dantzariak

Indiako Ozeanoan dagoen Sri Lanka irlako Sama dantza taldearen emanaldiaz gozatzeko parada izango da. Sama hitzak tamil hizkuntzan bakea esan nahi du eta egiten dituzten dantza tradizionalen bidez hori transmititzea dute helburu.

Eguna. Uztailak 31 (ostirala).

Ordua. 23:30 **Tokia.** Olazko Amaren Plaza.*

Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda



Bi sagardogile sagardoa ateratzen epaimahaiaren aurrean. **Urola Kostako Hitz**

||| EFEMERIDEA |||||

1747-7-12

Gazte ezkongabeen zerrenda, elkarren artean zozketatzeko. Herriko gazte ezkongabeen zerrenda egin zuten agintariek, eta hurrengo egunean, goizean, egitekoak ziren Herri Batzar Nagusian zozketatuko zirenen zerrenda osatu zuten.

Iturria: *Azpeitiko efemerideak* liburua. Imanol Elias*

Agurra

Aldizkari honen lehen aleak kaleratzean hasi nintzen nire lantxoak argitaratzen bertan, eta iruditzen zait garaia heldu dela beste norbaiti nire txoko hau uzteko. Bere iritziak, istorioak eta kontuen berri eman dezan. Nik, gehienez behintzat, herriaren historian oinarritutako lanak eman ditut ezagutzera; gogoan izanik zerbait maitatzeko, derrigorrezkoa dela aurrez ezagutzea. Ongi dakit ez dudala lortu izango gauza handirik, baina huskeria batekin konformatuko nintzateke.

Nik baino idazkera hobea duena izango da noski ataltxo hau beteko duena, gaiak ere interesgarriagoak; baina, lantxo bakoitzean jarri dudana gogoan eta nahia gaintzea zaila egingo zaiola iruditzen zait. Bata eta bestea oinarri bereziak izan ditut urteetan irakurleengana iristeko. Urteetan ohitura bihurtu

||| Lantxo bakoitzean jarri dudana gogoan eta nahia gaintzea zaila egingo zaiola iruditzen zait

tu den zerbait mozteak, barnean azkura antzeko zerbait sortzen dit. Batez ere jakinda aurrera jarraitzeko ez dudala gairik falta, gure herriaren historia agortezina eta aberatsa delako. Baina, gertatzen dira gure artean ulergaitz egiten diren gauzak, eskatzen dutenek derrigorrez erabaki bat hartzea eta horrela egitea egokia iruditu zait une honetan.

Pentsatzen dut, atsedentxo bat hartzea ez zaidala gaizki etorriko. Baina, ahal dudana artean, behintzat, ikerketa lanean jarraituko dut; gero, egindako lanak argitaratzeko unean oztopoak aurkituko badituz ere.

Dena dela, nire eskerrik sutsuena agertu nahi diet aldizkari zuzendariari, eman didaten aukeragatik eta zer esanik ez, berriz, urteetan zehar eta hilean behin nire lantxoak irakurri dituzten guztiei, beraiantzat idatzi ditudanez.

Azkenik, biderik luzeena opa diot Uztarriari eta guztiok ezagutu dezagula.*



||||| imanol elias |||||

||| EZAGUTZEN? |||||

Madalena Arregi

Santo Domingo monasterioa sortuz nagusitasuna eskuratu nahi izan zuen. Agintariek begi txarrez ikusi zuten bere jokaera. Eztabaida ugari izan arren, 1611tik aurrera eraiki zuten.

Akilino Amezua Jauregi

Bost tekladun organo elektriko handia egin zuen Bartzelonan zuen fabrikari (1888) eta urrezko dominarekin saritu zuten. Organoa egileen munduan sekulako arrakasta lortu zuen.

Iturria: *Azpeitia, 500...*

Azpeitiarrak eta herriarekin bat eginak liburua. Imanol Elias*

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
Larrialdia:
943.15.16.40
ALBAITARI KLINIKA


PEUGEOT
AIZPURU AUTOAK
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

domusa

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"
URBISTONDO MARGOAK
Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

kutxa

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



HITZ GEZIDUNAK

	Ihesa	Birrintzea	Txirula jotzailea	Igaro-takoak	Ikastera behartu
	Txolarre	Apal	Turkiako hiria	Zintzoa	
	Zuhaitzak	Zoroki	Librea	IRUDIAN	Artsenikoa
	Kolore askotako	Askatu	Kolore askotako	Askatu	
Atzikia	Iruñeko futbol inst.	Aranguren-go herrixka	Alemaniko eskualdea	Adar	Kontso-nantea
Presio unitate	Euskal behi basa	Harriak jaurtiz	Her. hizk., zer	Odolaren baitan	
Egokiera, parada				Akabatu	
				Bokala	Bokala
				Atsekabea, oinazea adierazteko hitza	

Egilea: Luma


* Goierriko herria

HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan irudietako harribitxien izenak



A	T	E	Z	O	R	U	N	H	O	M	R
E	G	I	D	R	O	N	A	P	R	A	E
N	Z	A	E	T	N	A	M	A	I	D	P
U	J	A	T	I	K	E	O	N	S	L	J
R	I	L	E	A	H	R	O	I	S	A	E
T	O	Z	E	K	I	R	A	T	D	R	O
M	U	S	K	F	E	U	R	E	H	E	N
Z	I	R	A	I	L	B	A	X	I	M	E
D	A	Z	K	R	O	I	A	N	D	S	I
A	G	E	R	E	H	A	O	N	A	E	Z
T	J	A	F	O	S	D	L	I	J	E	N
E	S	A	O	I	Z	A	P	O	T	X	O
R	E	S	D	M	R	E	A	R	I	E	P
O	M	A	T	U	K	O	Z	E	R	D	I



SOLUZIOAK


HITZ GEZIDUNAK

I	E	A	•	A	R	E	K	U	A	•
Z	•	L	I	H	•	U	Z	I	T	B
A	K	R	A	R	H	•	A	R	B	•
R	A	B	A	•	E	A	R	O	X	T
A	N	A	L	O	Z	•	A	R	A	•
S	A	•	U	S	T	E	O	R	O	K
A	G	A	R	A	R	A	Z	•	L	•
K	A	N	A	H	U	Z	•			
I	R	O	X	E	T	X	E	T		
•	I	•	T	•	X	•	I	•		

HIZKI ZOPA

I	O	M	A	T	U	K	O	Z	E	R	D	I
R	E	S	D	M	R	E	A	R	I	E	P	
E	S	A	O	I	Z	A	P	O	I	X	O	
T	J	A	F	O	S	D	L	I	J	E	N	
Z	A	G	E	R	E	H	A	N	O	N	A	E
D	A	K	R	O	I	A	N	D	S	I		
Z	I	R	A	I	L	B	A	X	I	M	E	
M	U	S	K	F	E	U	R	E	H	E	N	
R	O	Z	E	K	I	R	A	T	D	R	O	
R	I	L	E	A	H	R	O	S	A	E		
U	J	A	T	I	K	E	N	S	L	C		
N	Z	A	E	T	N	A	M	A	L	D	I	P
E	G	I	D	R	O	N	A	P	R	A	E	
A	T	E	Z	O	R	U	N	H	O	M	R	

ZEIN DA?



||| **ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTENAKO EPEA.** Uztailak 17 (ostirala) ||| **NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA.** Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| **IRABAZLEARI SARIA.** Larchago upategiko ardoak ||| **PARTE HARTZEKO BALDINTZA.** Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| **ZEIN DEN ADIERAZI.**

||| **ZURE IZEN-ABIZENAK**

||| **TELEFONO ZENBAKIA**

UZTARRIAREN EKAINEN ARGAZKI LEHIAKETA

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



BI LEIHO SOBERAN DITU BASELIZAK



IRABAZLEA



Begoña Amubieta Uztarrriako bazkidea izan da lehiaketako 108. irabazlea. Larchago upategiko ardo sorta eraman du etxera, sari gisa. Argazkian, Begoña Amubieta, saria eskuetan duela.

Odriozola Ardoetan

Larchago krintza 2006
GETARIAKO ASTILLERO JATETXEKO
ARDO KARTAN

Krintza Lepagorria borobil eta erraz edatekoa.

Tenia

Gure inguruan esames ugari sortzen duen zizarea da tenia. Zizare honen kalteak puzten dituzten sineskeria faltsu asko dago, oraindik ere.

Gure liseriketa bidean dagoen guztiarekin aprobetxatzen den parasittoa da; liseriketa egin beharrik ez du eta hesteetatik zuzenean elikatzen da, osmosi bidez. Buruan dituen bentosa eta gakoan bitartez hestearen horman itsasten da.

Batzuetan, pertsona ez da konturatzen barruan duela. Besteetan, berriz, urduritasuna, beherakoa eta anemia eragiten ditu. Gerta daiteke zehaztu gabeko sintomak agertzea ere: botagura, jateko gogo eza edo, haur baten kasuan, behar baino gutxiago haztea. Baina, argi utzi nahi dut arrautzak jartzen dituen bitartean inoiz ezin dugula esan tenia dugunik. la beti bakarrik ageri ohi da, baina zortzi metroko luzera izatera ere heldu daiteke.

Gure eguneroko bizitzan, garbitasunari esker eta elikagaiak behar duten tratamendua jasotzen dutela seguru gaudelako, ez dugu beldurrik izan behar.

Tratamendurako medenbazol eta gazdun libragarria hartzea gomendatzen da. Lasaitasun gehiagorako, elikagaiak 50 gradu baino tenperatura altuagoan egun batean berotuta edo izoztuta suntsitzen dia. Ez du bestelako garrantziarik osasun aldetik.*



Julian bereziartua

JEXUX OTAMENDI erloju konpontzailea



1. Erloju digitala ala orrazduna?

Beti orrazduna daramat.

2. Modako materiala?

Zilarra, prezioarengatik.

3. Bitxi bat oparitu beharko bazenu, zer?

Diamante bat.

6. Dendan izan duzun

gauzarik baliotsuena?

Santa Kutz komentuko mojen ordularia.

5. Gehien saltzen den bitxia?

Urrezko belarritakoak.

6. Ohiko konponketa?

Pila aldatzea.

7. Lapurreten

kontrako neurririk?

Derrigortuta gaude gotor kutxak, alarmak... izatera.

8. Bitxikeriarik bai?

Tomate landareentzako hautsa eskatu zidaten.

Farmazia delakoan jende asko dator errezetekin.*

Ainitze Agirrezabala

www.uztarria.com

azpeitiko ataiye

|||eguneko albisteak |||irakurleen erantzunak |||eguneko argazkia |||bideoak |||blogak |||inkesta |||agenda |||bitxikeriak
|||'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... |||uztarria herri aldizkari denak
|||eguneko efemerideak |||gida komertziala...

|||sartu sarean, eta hartu parte |||egunero 7.000 orrialderen bisita
|||orain ikusi: uztarria-ren tour-eko porra, 'pourra 2009'



Uztailak
25
 larunbata

Santio Eguna Baserritarren Eguna

09:00etan Goiz eresia.

10.30ean XXV. Pilota Txapelketa, Cesar Valverde Saria, Frontoi Txikin.

11:00etan Ganadu erakusketa eta txapelketa. XI. Gazta Lehiaketa.

12:00etan XXXVII. Sagardo lehiaketa, plazan.

Sagardo Festa honetan bezperan prestatzen hasitako txekor errea dastatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen diren herritar guztiak. Bildutako dirua hirugarren mundura zuzendua egongo da. Aldi berean, Itsasi taldearen Ttuntturroek, bertsolariek eta trikitilariak beren doinu eta kantuz plazako giroa alaituko dute.

18:30ean. Desenkajonamendua, zezen-plazan.

19:30ean. Nahidekena txarangaren kalejira, zezen-plazatik.

22:00etan. Musika emanaldia, plazan.

Zatoz, Baserritarren
 Eguna giro onean ospatzera!

 **azpeitia**
 udala



Inurri lanaren fruituak

Leo Etxeberria zenari eskainitako liburuxka biografikoa uztailaren 18an aurkeztuko du Uztarriak. Saileko bigarrena da. 📎 Uztarria

Julian Bereziartuarekin abiatu zuen Uztarria Komunikazio Taldeak liburuxka biografikoen proiektua joan den martxoan. Bigarrena ere laster izango da kalean. Oraingoa, Leo Etxeberriari buruzkoa. 28 urte pasa dira dagoeneko hil zenetik, baina harekin hartu-emanen bat izan zutenek ez dute ahaztuta Leo. Izan ere, hain esker gutxikoa izaten den inurri lana egin zuen hainbat eta hainbat arlotan.

Miren Garate kazetariak idatzi du biografia, eta uztailaren 18an aurkeztuko du Uztarriak. Jarraian liburuxkan agertzen diren pasarte batzuk irakur ditzakezue.

40 urte herriari

1941etik 1981era. Bizitza motza izan zuen Leo Etxeberriak, 40 urte bete zituen hilabete berean hil baitzen. Baina, iraupen labur horren berri aurrez jakin izan balu ere, nekez aprobeztatuko zuen denbora hobeto. Sindikalgintzan aritu zen aurrena; ikastoletan gero; baita euskararen alfabetatzean ere; herriko artxibo guztiak goitik behera astindu zituen; gertutik jarraitu zuen kooperatibagin-

tza; eta Frankismo osteko lehen hauteskundeetan, Kulturako zinegotzi kargua hartu zuen. Finean, 40 urte eskaini zizkion herriari.

Testuinguruak ematen die behar adinako garrantzia hark egindakoei. Frankismoan bizitzea egokitu zitzaion. Diktaduran, eta haren ezaugarri diren debeku eta inposizioan. Ezina ekinez egin egiten da ordea. Horregatik, inguruarekin kezkatuta, gaztetatik hasi zen herriko hainbat mugimendutan. Gainera, ez zen parte hartzera soilik mugatu, arrastoa utzi zuen denetan. Eta, hil zenetik 28 urte pasatu diren arren, harekin hartu-emanen bat eduki zutenek gogoan dute oraindik. Malkoei eutsi ezinda hitz egiten dute Leori buruz.

11 urterekin lanera

Oso goiz hasi zen lanean Leo, oinarrizko ikasketak amaitu aurretik. Aurrena okindegi batean, gauetz, 11 urte zituela. Eta berehala, Hermanos Agirre altzari enpresara joan zen. Osaba batek egiten zuen lan han, eta hari laguntzen zion. Enpresaz aldatu zenean, gaue-tan joaten zen eskolara Leo, Victoriano Fernandez *maisú beltza*-rena. Hala ere, urte

haietan ohikoa zen bezala, ez zuen ikasketekin luzaro jarraitzeko aukerarik eduki, 14 urterekin-edo utzi baitzituen, lanean segitzeko.

Gogorrek ziren orduan lan baldintzak, luzeak lanegunak. Ordu asko sartu behar izaten zituzten egunero, eta ez zegoen langileen eskubideak defendatuko zituen sindikaturik. Egon bai, ELA, adibidez, 1911n sortu zen, baina Frankismoak legez kanpo utzi zituen guztiak. Erregimenak ofizialtzat jo zuen *Organización Sindical Española* izan zen salbuespena, 'sindikatu bertikal' izenez ezagutzen zena. (...).

Acción Católica-ren egoitzetan egiten zizuten ELAren bilerak, ezkutuan noski. Bi zeregin nagusi zituzten. Alde batetik, ohiko jarduera sindikala: "Enpresetan zer arazo zeuden eta nolako negoziazio kolektiboak zituzten aztertzen genuen, orain egiten dena, baina legalitaterik gabe eta herri mailan, enpresatik enpresara. Herrian antolatzen ziren protesta guztietan ere hartzen genuen parte", dio Alfonso Etxeberriak.

Larunbat arratsaldetan lan egitearen aurkakoa zen horietako bat. Leo bera izan zen

bere enpresako zuzendariei aldarrikapenaren berri eman zienetako bat. Asko haserretu ziren haiek, hura ez zela lan egitea, enpresa guztiak itxi beharko zirela... Leok ezetz, astean zehar beteko zituztela orduak, eta beste herrialde batzuetan ere hala egiten zela, esaterako, Erresuma Batuan, eta larunbat arratsaldeetan jai egiteagatik ez zela enpresarik itxi han.

Hainbat mobilizazio egin ziren herrian, eta azkenean lortu zuten larunbat arratsaldetan lanera joan beharrik ez edukitzea. Sekulako garaipentzat hartu zen hura (...).

Ikastolako batzordean

Euskara, kultura eta historia ziren Leoren pasio nagusiak, eta sindikatua laga ostean, bide horiei ekin zien, indar guttiz. Barruak hori eskatzen ziola esaten zuen. Ikastoletan sartu zen aurrena. Ez zuen sorrera fasean parte hartu. 1965ean jarri zen martxan Karmelo Etxegarai eta 1973 inguruan sartu zen bera batzordean. Baina urte gutxi ziren ikastola funtzionatzen hasi zenetik, eta artean arazo asko zituen, dena zegoen egiteko eta erabakitzeke.

Leo batzordean sartu berritan, esaterako, polemika handia egon zen ikastolan erabili beharreko hizkera ereduaren inguruan. Euskara batuari buruzko eztabaida pil-pilean zegoen. Azpeitiko ikastola sortu eta hiru urtera, 1968an, finkatu zuen Euskaltzaindiak euskara batzeko lehen arau-multzoa, Arantzazun egindako batzarrean. Eta han hizkuntza idatzian erabili beharreko ortografia, morfologia eta deklinabidea zehaztu zituen.

Hizketa berriak euskara galbidera eramango zuela uste zuen uste zuten ikastolako guraso batzuek, eta eskolan hura erabiltzearen aurka zeuden. Ideologia komunista bultzatzen zuela ere esaten zuten, eta ez zedela horrekin ados (...). "Izugarria izan zen, hil edo biziko zerbait zela ematen zuen", dio Inaxita Bereziartuak. Leo euskara batuaren aldekoa zen, batere zalantzarik gabe, eta iritzi hori defendatzen ahalegindu zen. "Etxez etxe ibili ginen gurasoei boto eske" (...).



1. Kultura eta euskararen munduan lan asko egin zuen Leo Etxeberria. Autodidakta izan zen, bere kabuz jantzitakoa, eta hizlari ona, ezagutu zutenek aitortzen dutenez. Julio Caro Barojarekin agertzen da hemen.

Leo batzordean egon zen bitartean hartutako erabakirik garrantzitsuenetakoa, ikastola kooperatiba bihurtzea izan zen. "Garai hartan ez zegoen elkarrekin sortzeko askatasunik. Hamar lagunek asoziazio bat osatu eta irakaskuntzarako baimena lortzea ia ezinezkoa zen" azaltzen du Leandro Larreak. Legearen aurrean, Elizaren babesaren zuten ikastolak, eta hala eskuratzen zituzten baimenak. Baina, tamaina handia ari ziren hartzen, eta

Elizak berak ere erantzukizuna lagatzeko gogoia zuen orduko.

Azpeitia, Azkoitia eta Zestoako ikastolekin osatu zuten kooperatiba, eta Izarraizpe izena jarri zioten. Hura antolatzeke lantegitiki egun erdiz liberatu zuten Leo. "Bitxia izan zen garai hartan egun erdia ikastolei dedikatzeke eskatzea, baina bazegoen kontzientzia hori, ikastolak beharrezko ikusten ziren. Herriko kooperatiba guztiek eman zuten laguntza", dio Leoren emazteak (...).

Urte eta erdian egon zen liberatuta. Azpeitiko ikastolako batzordean ez ezik, kooperatiba osatu ostean, Urola bailarako ikastolako batzordean ere egon zen. Esan daiteke ikastola berriaren sorreran oinarrizko pertsona izan zela Leo.*

TESTUA |||||

DATUAK.

Orrialdeak. 55.
Neurriak. 10 x 8 zentimetro.
Tirada. 1.200 ale.
Prezioa. 5 euro (Uztarriaren bazkideek doan jasoko dute).

15. PRODUKTUA.

Aurreko 13 liburuak. *Joxe Takolo, Angel Otaegi, Imanol Elias, Patxi Altuna, Azpeitiko efemerideak, Euskarazko prentsa eta Azpeitia, Azpeitiko mendi gida, Loiolari ez balitz, Otsobeltz, Urrestillako musika taldeak, Azpeitiarrak Espainiako Gerran, Oroitarri, Julian Bereziartua.*

CDa. *Urolaldekoko bertso zaharrak.*

KIRURI

JATETXE
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tlfnoa.: 943 81 58 08
Faxa.: 943 15 03 62

argi jokatu
zure **publizitatearekin**

uztarrria
Azpeitiko erakusleho handiena

Koh Tao

OSAGARRIAK
Foru ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730. AZPEITIA (Gipuzkoa)

ORDULARI

Jose de Arletxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Uztailen bi hitzordu izango dituzte: uztailaren 15ean eta 29an.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70	943 08 06 88
-----	----------	--------------

FARMAZIAK (UZTAILA)

EGUNEZ

1-7-13-18-19-24-30	2-8-14	3-9-15-20-21-27	4-5-10-16-22-28-31	6-11-12-17-23-25-26-29
Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811274	943 080258	943 811350	943 811949	943 815974

GAUEZ

1-13-18-19-30	2-14	3-15-27	4-5-16-28-31	17-29	6-10-11-12-23	7-8-20-25-26
Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Aranburu (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Jaen (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).
943 811274	943 080258	943 811350	943 811949	943 815974	943 850660	943 851235

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina ren 13tik irailaren 13ra, egunero, 11:00-20:00 **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** ||| Astearte-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



OSTIRALEAN AZOKA.

Joan den ekain hasieratik astearte goizetan azokara joan ezin dutenek ez dute ja aitzakiarik. Ostiral arratsaldero, 17:30etik 20:30era, bertako baserrietako produktuak eskura dituzte Azoka plazan.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

RODRIGO CARRASCOSA

Garmendipeko atezaina

“TorreLavegaren egunean hura Lana, baina hura poza!”

“Denetariko jendea” aurkitu du futbol zelaiko sarreran. Kanpokoekin lan gehiago izan du, halere. 📧 Mailo Oiarzabal

Zenbat urte daramatzu Garmendipen, eta nolatan hasi zinen?

Orain dela 34 urte hasi nintzen, Villalba de los Barrosetik (Badajoz, Espainia) Azpeitira iritsi eta urtebetera. Lagun batek esanda; hil zen, gizajoa. Biak hasi ginen joaten. Hasieran tribunan jartzen nintzen, txartelak jasotzen. Urtebetera-edo esan zidaten, sarrerako atera pasako al nintzen. Eta nik baietz, baina gehiago ordaindu beharko zidatela; ‘zu ez kezkatu’, esan zidaten. Eta gaur arte.

Zeintzuk dira zure egitekoak?

Denboraldi bakoitza hasterako zehazten dizkit egitekoak presidenteak, eta hark esandakoak betetzen ditut nik. Partida hasi baino bi ordu aurretik joaten naiz normalean futbol zelaira, kotxeak ate ondoraino sar ez ditzaten zaintzera. Atezain lanak baditu bereak, denetariko jendea etortzen da eta.

Zenbat denbora egoten zara atean?

Normalean lehenengo zati osoa. Badira urte batzuk bigarren zatietan geratzen ez nintzela, baina aurten behin baino gehiagotan tokatu zait bigarren zatiko erdialdera arte geratu beharra.

Pasadizorik ez zaizu faltako...

Bat kontatuko dizut, inoiz ahaztuko ez zaidana. Garmendipera joaten hasi nintzen urtea zen, tribuna inauguratu zutenekoa. Behin, gizon bat etorri zitzaidan, sarrerarik gabe. Nora zijoan galdetu nion. Berak, Lagun Onakeko presidentea zela; nik ez nuen ezagutzen, eta karneta erakusteko... baina etxean ahaztu zitzaion. Zuzendaritzako bat etorri zitzaidan baietz, hura presidentea zela esanez, eta horrela sartu zen. Baina ez zidan gaizki hartu, alderantziz: “Horrela gustatzen zait, jendeak bere ardurak betetzea”, esan zidan.

Jendearekin gorabeherarik bai?

Azal gogorreko jendea badago, ordaindu gabe sartzeko ahalegin guztiak egiten dituen. Gorabehera handienak kanpoko jendearekin izaten ditut; herrikoekin inoiz ez dut ezer handirik izan.

Zer moduz moldatu zinen Gimnastica TorreLavega etorri zen egunean?

TorreLavegaren kontrako partida bezalakorik ez dut nik ezagutu Garmendipen. Hura eguna eta hura lana, baina hura poza geneukana guztiok!*



1

1., 2. Lagun Onak-La Nucia partidaren ere ez zitzaion lanik falta izan Rodrigo Carrascosari. 3. Etxeko balkoian, Garmendipe atzean duela.



2



3

Eta dio torturak

Eta dio Enekok: “Deklarazioa onar nezan gero eta gehiago jotzen ninduten eta zer edo zer pasatzen zidaten gorputzean. Batak esaten zuen: ‘baietz entxufatu, baietz entxufatu!’, eta besteak: ‘ez, ez ie-zaiok entxufatu, bateria berria dik eta kiskali egingo duk. Arrautzetan jartzen badiok buruko ilea erreko diok”.

Eta dio Izatek: “Etortzen ziren aldiro, komentario sexistak egiten zituzten etengabe”: ‘Ea zer esaten digun txortabero honek. Hik ez dun hankak zabaldu besterik egiten, ezta? Zer dion, mutilak ikusi orduko hankak zabal-tzen ditun, ala zer?’”.

Eta dio Jokinek: “Haietako bat sartzen da eta zer nahiago dudan galdetzen dit: ipurtzulotik eman edo kirtena zupatu. Nik ez dut ezer esaten. Berak, brageta jaisten du pistola buruan jartzen didan aldi berean. Tiroa joko didala mehatxu egiten dit kirtenean horzka egiten badiot”.

Eta dio Jose Ramonek: “Eranztera behartu ninduten, barre egiten zidaten eta joka segitzen zuten. Orduan, poltsa saioak egiten hasi zitzaizkidan. Ni kaputxatuta nengoen, larrugorritan, nekatuta eta hotzikaratan. Poltsa sartzen zidaten burutik behera eta ezin nuen arnasik hartu”.

Eta dio Juan Antoniok: “Belarrira orroka ari zitzaizkidan, mahai gaina jotzen zuten, eranztera behartu ninduten. Ura bota zidaten gorputz guztira, elektrodoak jarri zizkidaten besoetan, titimuturretan, bizkarrean, zakilean, ipurdian eta hanketan. Elektrodoekin batera, poltsa jarri zidaten”.

Eta dio Juan Carlosek: “Itaunketara eraman ninduten zuzenean. Beste atxilotuetako baten orroak entzun ditut. Buruan kolpeak berriz ere, telefono aurkibide batekin eta egunkarietan bildutako makilekin. Buruan ematen dizkidaten kolpeak hain dira gogor-rrak, aurkibidea eta makila zati bat puskatzen dira”.

Eta dio Raulek: “Esaten zidaten: ‘Zer, adi-



|||miel a. elustondo|||

|||“Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere”

tzen al duk hau?’ Eta belarri ondoan jartzen zizkidaten elektrodoak. Txinparta zarata moduko bat aditzen nuen eta gero ziztada bat izterondoan, hurrena beste bat besoan. Bien bitartean, mehatxuka ari zitzaizkidan, hura ez zela ezer eta ikusiko nuela tentsioa igotzen zutenean”.

Amaren kontuak

Eta dio Susanak: “Haietako batek esan zidan ni bezalako neskei kuleroak janztea gustatzen zitzaiola. Aldi berean, zirriak egiten zizkidan eta behin eta berriz esaten: ‘Hire ipurdia ikusteko gogoak nagon’”.

Eta dio Unaik: “Burua erre beharrean nukan. Ukitzen nuen eta beldurgarri handituta zegoen. Begietako minez nengoen eta burua lehertu behar zitzaidala iruditzen zitzaidan. Amaren kontuak nire onetik aterata nindukan, eta neure burua lesionatzea erabaki nuen eskumuturrei hozka eginez”.

Eta dio Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 5. atalak: “Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere”.*





kolpeka

oinetakoen konponketak - giltzen eta mandoen kopiak - zorrozketak



ZAPATA KONPONKETAK

- Emakumezkoen eta gizonezkoen oinetako takoi-zolak ·
Aurreko gomak · Zola osoak · Takoiak · Joskerak · Bestelakoak
- Betuna · Tintea · Lokarriak · Barne-zolak



GILTZEN ETA MANDOEN KOPIAK

- Giltzen eta mandoen kopiak



ZORROZKETAK

- Aizkorak · Aiztoak · Labanak · Guraizeak



kolpe, kolpe, kolpeka josi ta josi, josi ta josi

Aitor Berasategi

Jose Artetxe 16 - Azpeitia 20730 - Tel. 615726430

Ukabi
informatika

eskaintza ezin hobek
zure aurrezkiak salbu
dira gurean

TEL.: 943 15 01 01
Salbe auzoa, 39 behea
20730 AZPEITIA



**Acer emachine
EN520-582G2MI**

- Intel Celeron M575
- 2GB memoria
- 160GB disko gogorra
- 15,4" TFT pantaila
- DRW grabatzailea
- Webcam-a
- Windows Vista Home Basic



349 euro
b.e.z. barne

**Koloretako inpresora
laserra**

- C3300N
- 12PPM koloretan
- 16PPM zuri-beltzean



+ 90 euro
b.e.z. barne



Santi Lazkano Kirolak

**2009 UDA
MERKEALDIAK**